

"TRIBUAREN BERBAK"-EKO *BATUA ETA*  
*EUSKALKIAK* SEKUENTZIA DIDAKTIKOAN  
AHOZKO EUSKARAREN IRAKASKUNTZA  
OSATZEKO PROPOSAMENA

Euskal Ikasketak



Haizea Saez de Eguilaz Perez

Euskal Ikasketetako gradua

2017/2018 ikasturtea

Tutorea: Ibon Manterola Garate

Graduko jakintza-arloa/Saila: Euskal Hizkuntzalaritza /

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

## 1. Laburpena

Lan honen helburua da “Tribuaren Berbak”-eko Sekuentzia didaktiko batean ahozko euskara lantzeko proposamen didaktikoa osatzea. Zehazki, *Batua eta euskalkiak* 4. sekuentzia hartu da eta jendaurreko ahozko bidaia proposamena testu-generoaren irakaskuntza proposamena hobetzeko saioa egin da.

GRALaren atal teorikoan, testua, testu-generoa, eredu-didaktikoa eta sekuentzia didaktikoa zer diren azaltzeaz gain, hauek hizkuntzen irakaskuntzan duten egitekoa erakutsi nahi izan da. Bestalde, ahozko euskararen irakaskuntzaren ezaugarriak eta eskuragarri dauden sekuentzia batzuk ere bildu dira bertan. Bidaia proposamenaren generoaren inguruko deskribapena ere egin da, generoaren lanketarako dauden sekuentzia didaktiko batzuk ezagutzera emanez. Atala bukatzeko, “Tribuaren Berbak”-eko sekuentzia didaktikoei buruzko azalpen labur bat ematen da (besteak beste, antolaketa eta helburuak).

Bigarren atalean, bidaia proposamena generoa lantzea xede duen “Tribuaren Berbak”-eko sekuentzia aztertu da, zer dagoen azalduz eta falta dena adieraziz. Bertan, hainbat hutsune identifikatu dira, gehienak hizkuntza baliabideen lanketarekin lotuta. Hau da, sekuentziaren amaieran ebaluatuko direla esaten den arren, ez da topatu haien gaineko lanketa sistematikorik, eta hori hobetzen saiatzeko asmoz, ahozko bidaia proposamena generoaren eredu didaktikoa eta sekuentziaren egitura eman dira. Lehenengoan, generoaren alderdi irakasgarriak identifikatu dira, eta ondorengo sekuentzia didaktikoaren egiturari, helburuari, jarduerari eta material posibleak proposatu dira.

Azkenik, ondorioetan, GRALean egindako proposamenari lotuta, aurrera begirako erronkak aipatzen dira. Izan ere, GRAL honetan egindako proposamenaren ez dira jarduerak zehatzak eskaintzen eta are gutxiago proposamena esperimendatzen, bi helburu horiek GRALetik kanpo geratzen baitira.

Hitz-gakoak: testua, testu-generoa, eredu didaktikoa, sekuentzia didaktikoa, hizkuntzen irakaskuntza, ahozkoa.

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. ALDERDI TEORIKOA .....	4
2.1 Testu-generoetan oinarritutako sekuentzia didaktikoak.....	4
2.1.1 Zer da testua?.....	4
2.1.2 Zer da testu-generoa?.....	4
2.1.3 Zergatik dira testuak eta testu-generoak hizkuntzen irakaskuntzarako baliagarriak? .....	5
2.1.4 Testu-generoen ekoizpenaren irakaskuntza: generoen eredu didaktikoa eta sekuentzia didaktikoa .....	6
2.2 Ahozko euskararen irakaskuntza.....	9
2.2.1 Zer da ahozko hizkuntza? .....	9
2.2.2 Ahozko hizkuntza lantzeko sekuentzia didaktikoak.....	11
2.3 Jendaurreko ahozko bidaia proposamena.....	13
2.3.1 Zer da? Eta nola irakatsi?.....	13
3. ALDERDI PRAKTIKOA .....	19
3.1 <i>Batua eta euskalkiak</i> sekuentzia didaktikoa aztertzen .....	19
3.1.1 Aurkezpena .....	19
3.1.2 Analisia .....	20
3.2 Proposamena egin .....	22
3.2.1 Helburua.....	23
3.2.2 Testuinguru soziolinguistikoa.....	23
3.2.3 Eredu didaktikoa .....	23
3.2.4 Sekuentzia didaktikoaren egitura.....	25
4. ONDORIOAK.....	28
5. BIBLIOGRAFIA .....	30
6. ERANSKINAK .....	32
ERANSKINA 1.....	32
ERANSKINA 2.....	40
ERANSKINA 3.....	54
ERANSKINA 4.....	55
ERANSKINA 5.....	55

## 1. SARRERA

Testuak komunikatzeko ezinbesteko unitate dira, errealitate guztiz konplexuak eta bertan, hizkuntza unitateez gain, beste hainbat faktorek eragiten dute; hala nola, komunikazio-egoera, egoera sozio-historikoa etab. (Larringan, 2009).

Testua nahitaez da genero batekoa. Testu-generoek hiru dimentsio hartzen dituzte kontuan: edukiak, komunikazio egitura eta hizkuntza unitateak eta horien arabera testu bat genero batekoa ala bestekoa izango da eta ezaugarri batzuk ala beste batzuk izango ditu. Horrela, multzo bereko testuak hainbat ezaugarri partekatuko dituzte eta haien identifikazioa, irakaskuntza eta ekoizpena errazten da (Dolz & Gagnon, 2010). Gainera, multzokatutako generoen artean transferentziak gerta daitezke, hots, haien dimentsioak antzekoak direnez, bateko ezagutzak bestean erabiltzea ahalbidetzen dute testu-generoek.

Testuak eta testu-generoak hizkuntzen irakaskuntzan izugarritzko balioa dute. Irakaskuntzarako mega-erremintak dira, hau da, balio metalinguistikoa duten elementuak (Larringan, 2009). Ozaeta eta Garroren (2010) iritziz, hizkuntzaren praktika errealak dira generoak, gizartean kokatuta daudenak eta historian zehar finkatutako ezaugarriak dituztenak.

Hizkuntzen didaktikak hizkuntzen irakaspenerako dituen bi tresna dira eredu didaktikoa eta sekuentzia didaktikoa. Eredu didaktikoaren bidez generoaren osagaiak deskribatzen dira eta irakasgarri izan daitezkeen alderdiak agerian jartzen dira (Ozaeta & Garro 2010). Sekuentzia didaktikoak, aldiz, jarduera multzo edo plangintzak dira. Hasierako ekoizpen baten bidez irakasgarri izan daitezkeen alderdiak zein diren erabakitzen da eta hainbat tailerren ondoren azken ekoizpen bat egiten da eta bertan hobetu edo ikasi dena ikusi (Dolz & Gagnon, 2010; Garcia-Azkoaga & Manterola, 2016).

Ahozko hizkuntza gizakiaren ezaugarri nagusienetako bat den arren, haren irakaskuntzari ez zaio behar bezalako garrantzia ematen. Gainera, euskara den bezalako hizkuntza izanagaitk, eskolak rol garrantzitsua betetzen du euskararen erabileran, eta Diaz de Gereñuk (2017) haren irakaskuntzaren premia ikusten du.

Oinarri teoriko horien ildotik, bidaia proposamena generoa lantzeko proposamen didaktikoa egin da lan honetan. Hain zuzen ere, "Tribuaren Berbak"-eko *Batua eta euskalkiak* sekuentzia didaktikorako ahazko generoaren sekuentziaren egitura da GRALean eskaini dena.

## 2. ALDERDI TEORIKOA

### 2.1 Testu-generoetan oinarritutako sekuentzia didaktikoak

Behin helburuak zehazturik, alderdi teorikoan murgilduko gara eta marko teorikoa ezarriko dugu. Horretarako, Genevako Unibertsitateko hainbat ikerlariren (Dolz & Gagnon, 2010; Dolz & Schneuwly, 1997) lanak hartu dira oinarritzat eta honakoak izango dira jorratuko diren gaiak: testua, testu-generoa, testuen eta testu-generoen eginkizuna hizkuntzen irakaskuntzan eta generoen eredu didaktikoa eta sekuentzia didaktikoak.

#### 2.1.1 Zer da testua?

Testu kontzeptua behin eta berriro agertuko zaigun hitza da eta beraz, hona hemen haren definizio posible bat: “testua mintzaira-egintza indibidualaren emaitza enpirikoa da, hiztunak sortzen duen komunikazio-unitatea” (Garcia-Azkoaga, 2015:18). Larringanek (2009) gaineratzen du testua ahozkoa nahiz idatzizkoa izan daitekeela eta luzeraz ere aldakorra, batzuk motzagoak dira eta beste batzuk luzeagoak. Horrez gain, testua ez dugu unitate linguistikotzat hartuko, baizik eta komunikazio-forma gisa, “autonomia komunikatiboa duen unitate txikiena” baita (Larringan, 2009:515): “nahikoa da testuaren planifikazio orokorra, xede-asmoak... begiratzea, konturatzeko faktore linguistikoez gain beste faktore praxeologiko eta kognitibo batzuk ere biltzen dituela” (Larringan, 2009: 518).

Horrez gain, Larringanek (2009) testura ekartzen ditu Saussureren (2002) hitzak eta aipatzen du testuetan eta diskurtsoetan agertzen direla benetako hizkuntza-zeinuak eta leku horietan antolatzen direla egokien. Hau da, ezin dela testutik eta diskurtsotik pasa gabe mintzairara iritsi.

Ez dugu ahaztu behar testua produktu edo emaitza sozial bat dela. Beste modu batera esanda, testuan barnebiltzen dira giza zein komunikazio jarduerak, historiako uneren batean eskakizun bati aurre egiteko sortuak (Larringan, 2009). Hau da: “todo texto es particular, es la obra de un individuo o de un colectivo en un momento dado”(Dolz & Gagnon, 2010: 500).

#### 2.1.2 Zer da testu-generoa?

Testu guztiak dira genero batekoak ala bestekoak (Larringan, 2009). Alegia, testuak ez datoz modu soltean, irizpide jakin batzuen arabera sailkatuta baizik.

Testuen tipologia egitearen ideia Bajtinek ekarri zuen 1984. urtean. Haren iritziz, testu-generoa funtsezko hiru dimentsioen batura da. Batetik, edukiak, bestetik, komunikazio egitura, eta azkenik, hizkuntza unitateak (Dolz & Gagnon, 2010; Dolz, Gagnon, Mosquera, & Sánchez, 2013). Hau da, genero bat aurreko hiru ezaugarriek definituko dute eta horrek baldintzatuko du testu bat genero batekoa ala bestekoa den, horrela testuen barietate zabala multzokatuz. Beraz, eta Garcia-Azkoagak (2015) aipatzen duen moduan, multzokatuta agertzen diren testuek, hainbat ezaugarri partekatzen dituzte.

Taldekatze hori ez da batere erraza izaten, testuak eta haien ezaugarriak oso anitzak eta dinamikoak baitira eta denboran zehar irizpideak nahiz testuak berak aldatu egiten baitira. Hau da, “Bronckartek onartzen du beste autore batzuek bezala (Batjin, Adam...), ezinezkoa dela testu-tipologia zehatza eta zurruna (behin-betikoa) egitea. Onartzen du ez dagoela sailkapen egonkorrik egiterik” (Larringan, 2009:532), testua entitate heterogeneoa baita. Modu horretan, “tipologiak, historian barrena, ugaritu egin dira eta deiturak ere guztiz bestelakoak dira sarritan” (Larringan, 2009: 530).

Hala ere, eta eginkizun zaila izan arren, generoek kultur ondarearen testuak biltzea ahalbidetzen dute eta haien irakaskuntza/ikerkuntza errazten dute (Dolz & Gagnon, 2010).

### 2.1.3 Zergatik dira testuak eta testu-generoak hizkuntzen irakaskuntzarako baliagarriak?

Testu-generoak hizkuntzen irakaskuntzarako lanabes oso baliagarriak dira eta ez da berria ahozko zein idatzizko irakaskuntzaren oinarritzko unitate gisa hartzea, hau da, ikasleek ahozko nahiz idatzizko gaitasunak generoetan txertaturik barneratzea (Garcia-Azkoaga & Manterola, 2016; Ozaeta & Garro, 2010).

Testu-generoa, beraz, “mega-erreminta” didaktiko bat da: “su carácter matricial y generador de actividades y acciones hace que sea en sí misma una megaherramienta” (Dolz et al., 1997:33). Izan ere, hizkuntzaren erabileraren hiru dimentsioak (edukiak, komunikazio egitura eta hizkuntza unitateak) kontuan hartzea ahalbidetzen du. Hau da, edukiak generoaren bidez eta generoan bertan adierazten dira eta komunikazio egitura eta hizkuntza unitateei lekua eskaintzen die generoetan oinarritutako irakaskuntza batek. Beraz, generoak irakatsi beharreko dimentsioen berri ematen du eta hiru dimentsio horiek langai bihurtuko dira eta ikasleentzako jarduerak sortzeko balioko dute (Dolz & Gagnon, 2010; Dolz, Gagnon, Mosquera, & Sánchez, 2013; Dolz & Schneuwly, 1997).

Dolz eta Gagnonen (2010) iritziz, generoak lantzeak zenbait abantaila ditu. Hala nola, generoen taldekatzea dela eta, askoz errazagoa da haien ezaugarriak, egitura eta edukia ikastea. Izan ere, “lanaren ekonomia” ahalbidetzen dute testu-generoek, hau da, multzokatuta dauden generoek ezaugarriak partekatzen dituztenez haien artean transferentziak gertatzen dira. Esate baterako, “el trabajo sobre las características comunes de los textos narrativos ayudará a poner en evidencia las particularidades de un género como el cuento de enigma” (Dolz & Gagnon, 2010:509). Hots, ikasleek genero bat aurrez landu dutenean eta ondoren molde bereko beste bat ekoizteko eskatzen zaienean, ikasitakoa aplikatu dezakete elkarren artean multzokatuta dauden testu-generoetan.

Bigarrenik, erreferentziazko praktika sozialak kontuan hartzen dira (Ozaeta & Garro, 2010). Hau da, eskolan ikasleei irakasten zaizkien generoek eskolatik kanpo nola funtzionatzen duten eta zein ezaugarri dituzten kontuan hartzen da generoetan oinarritutako irakaskuntzan. Hau da, erabilera irakasteko pertinenteak dira, izan ere, ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren irakaskuntza ikuspuntu historiko eta kultural baten baitan antolatzen da eta aurrez existitzen diren testuetatik abiatzen da. Adibidez, istripu baten txostenari buruz hitz egiten den unean bertan, testuaren egoera komunikatiboa, komunikazio egitura eta hizkuntza unitateak zein izan daitezkeen pentsatzen da (Dolz & Gagnon, 2010).

Hirugarren abantaila generoaren errepresentazio kolektiboarekin lotuta dago. Generoak erabileraren poderioz izendatuak eta sailkatuak diren heinean, errepresentazio sozialak dira eta horrek “erraztu egiten du ikaskuntzaren zentzua eta esanguratasuna” (Ozaeta & Garro, 2010: 25).

#### 2.1.4 Testu-generoen ekoizpenaren irakaskuntza: generoen eredu didaktikoa eta sekuentzia didaktikoa

Dolz eta Gagnonek (2010) generoak irakasteko bi erreminten berri ematen dute: generoen eredu didaktikoa eta sekuentzia didaktikoa (hemendik aurrera SD deituko dugu); baina zeri dagokio bakoitza?

Testu-generoa irakasgarri izateko generoen eredu didaktikoa sortu zen eta ahozko nahiz idatzizko testuetako osagai irakasgarriak formalizatzen ditu haien irakaspenerako (Dolz & Schneuwly, 1998). Hau da, eredu didaktikoak generoaren osagaien deskribapena egiten du eta modu horretan eskuragarri jartzen ditu generoaren alderdi irakasgarriak.

Horrela, generoaren alderdi eta edukiak irakaste prozesurako gai bihurtuz (Ozaeta & Garro 2010).

Beraz, generoaren hiru dimentsioak (edukiak, komunikazio egitura eta hizkuntza unitateak) irakasgai/irakasgarri bihurtzen ditu, eta lanketarako ariketak sortzea ahalbidetzen du. Hain zuzen ere, irakaskuntza praktikak bideratzen ditu (Ozaeta & Garro 2010).

Dolz eta Gagnonek (2010) ohartarazten gaituzte eredu didaktikoak balizkotasun didaktikorako hiru irizpide hartzen dituela kontuan:

- Zilegitasuna: erabiltzen diren baliabideak eta jakintzak balizkoak izan behar dute, bai ikuspegi akademikotik eta baita adituen aldetik ere. Esate baterako, gelaren deskribapena, testu gisa, ez da eskolaz kanpo identifikagarria den testu genero bat, ez bada, adibidez, eskutitza bezalako genero baten barruko zati bat. Hau da, lagunari eskutitz batean gelaren deskribapena sartuz gero, hizkuntzaren erabilera hori identifikagarria da eta beraz, zilegi izango litzateke.
- Egokitasuna: lanketan zehar egiten diren jarduera eta ariketak eta bertan agertzen diren jakintzak generoaren osaerari eta helburuari lotuta egon behar dute. Adibidez: errezeta idatziaren generoan, ohikoak izango dira hurrenkera markatzen duten testu antolatzaileak: *lehendabizi, ondoren...* Eta beraz, haiek lantzea egokiagoa da arrazoiketakoak lantzea baino.
- Solidaritatea: erabiliko diren baliabideen koherentzia bermatuta egon behar da. Hau da, “elkarrekin osotasun bat eginez [...] ariketak elkarrekiko atxikirik emango direla” (Larringan & Idiazabal, 2012: 18). Alegia, helburu gisa aukeratu den generoari dagozkion alderdiak landuko dira jardueretan.


Irudian ikus daitekeen bezala, generoak 6 alderdi irakasgarri (komunikazio egoera, edukiak, testu plana, testualizazioa: hizkuntza baliabideak, hizkuntzaz gaindiko baliabideak eta diseinua) ditu eta guztiak elkarri lotuta ageri dira.





1. irudia: Generoaren eredu didaktikoa. Iturria: Dolz & Gagnon, 2010:513

SDak hizkuntzen irakaspenerako didaktikak duen tresna garrantzitsuenak dira eta horrela, ahozkoa nahiz idatzizko testuak era antolatu eta ordenatu batean irakasten dira (Garcia-Azkoaga, 2015; Garcia-Azkoaga & Manterola, 2016). Kontzeptu hori Ginebrako Unibertsitateko Hizkuntzen Didaktikako ikertaldeak eskaini zuen lehen aldiz eta honela definitzen dute Garcia-Azkoaga eta Manterolak (2016): “una herramienta para la enseñanza del género textual como unidad comunicativa” (46.or.). Gainera, propietate teoriko eta epistemologiko zehatzez hornituta dagoen lanabesa da (Garcia-Azkoaga, 2012; Garcia-Azkoaga & Manterola, 2016; Larringan & Idiazabal, 2012).



2. Irudia: Sekuentzia didaktikoaren egitura. Iturria: Dolz & Gagnon, 2010:514

Larringan eta Idiazabalek (2012) eta Dolz eta Gagnonek (2010), SDaren faseen berri ematen digute:

Lehen etapan egoeraz jabetzen da ikaslea. Proiektuaren aurkezpena egiten da eta testuinguru jakin batean kokatzen da.

Bigarrenean, hasierako ekoizpena egiten da, aurre-testua deritzona. Hemendik abiatuta, irakasleak erabakitzen ditu landuko diren gaitasunak. Izan ere, aurre-testuan identifikatutako zailtasunak izango dira lanketa gai (Garro & Perez, 2010).

Hirugarrena, berriz, tailerrek eta moduluek osatzen dute: “cada taller está destinado a mejorar uno de los componentes del texto que se redactará o a la resolución de un problema de escritura observado en las producciones iniciales de los alumnos” (Dolz & Gagnon, 2010: 514).

Azken etapan ikasitako guztiarekin bukaerako ekoizpena (ondo-testua) egiten da, eta baita errebisioa eta ebaluazioa ere.

Garcia-Azkoagak 2015eko artikuluan SDen hainbat ezaugarri aipatzen ditu, hala nola, hainbat egoera didaktikotara moldatzeko malguak direla, ikaslearen ebaluazio formatiboa ahalbidetzen dutela, identifikatutako zailtasunak lantzen direla, komunikazioaren edo hizkuntzaren alderdi jakinak lantzeko jarduerak edo ariketak egiten direla...

Garcia-Azkoagak eta Manterolak (2016) azkenik, baliabide honekin irakasleak eta ikasleak elkarrekin jarduten direla aipatzen dute. Ikasleen aurre-testutik abiatuta, irakasleak dira SDaren diseinua moldatzen eta antolatzen dutenak. Horregatik, sekuentzia horiek erabiltzeko irakasleen formakuntza beharrezkoa da eta bertan, SDen oinarri teoriko eta metodologikoak azpimarratzea (Garcia-Azkoaga, 2015; Garcia-Azkoaga & Manterola, 2016): “para poder preparar una SD destinada a enseñar un género textual, el profesor o profesora debe conocer las características del género textual a trabajar y también las nociones y conceptos asociados a este modelo didáctico del género (Garcia-Azkoaga & Manterola, 2016: 48).

## 2.2 Ahozko euskararen irakaskuntza

### 2.2.1 Zer da ahozko hizkuntza?

“Ahozko modalitatea gizakiari espezie modura berez dagokion ezaugarri bat da” (Garcia-Azkoaga, 2009:178). Hau da, unibertsa da. Gainera, ahozkoa ezinutzizko elementua da norbanakoaren garapen pertsonalerako eta besteekiko harremanetarako. Bestalde, ahozkoa oso anitza da, hainbat alderdi ditu eta era askotara jardun gaitzke ahoz, bakoitzak bere ezaugarri eta berezitasunak dituelarik (Garcia-Azkoaga, 2015). Ildo

horretatik, hainbat galdera sortzen dira ahozkoa irakasgarri bihurtu nahi denean: zer irakatsi zehazki? Zein baliabide eta metodologia hautatu?

Ahozkoaren irakaskuntza baztertuta egon da orain gutxi arte eta jakintzak adierazteko tresna gisa ikusi izan da maiz (Garcia-Azkoaga, 2015; Ozaeta & Garro, 2010). Egunerokotasunean garrantzia izanagatik ere, irakaskuntzan eta Curriculumean betetzen duen lekua ez da behar luken bezalakoa eta irakaskuntzarako bitarteko eta objektu gisa ikusten da soilik. Hori aldatzeko asmoz, korrante berriak heldu dira, eta beraz, eskolaren eginkizun nagusia da ahozkoa objektu autonomo gisa irakastea. Horrela, ahozkoa irakaskuntzaren helburu gisa jarritz. (Garcia-Azkoaga, 2009, 2015). Baina nola heldu ahozkoaren irakaskuntzari?

Aurrez esan dugu hizkuntzen irakaskuntza oro testu-generotik abiatzea proposatzen dela eta beraz, ahozkoa ere bide horretan kokatu behar dugu. Ozaeta eta Garrok (2010) eta Garcia-Azkoagak (2015) diote, testu-generoa, eta eredu didaktikoa direla ahozko hizkuntza irakasteko oinarritzko unitateak, ahozkoarekiko bi dimentsioak hartzen baitira kontuan: irakaskuntzaren objektu moduan eta bitarteko moduan.

Testu-liburuei dagokienez, ahozkoaren arazoak hor jarraitzen du. Zerbait hobetu den arren, metodologia ez da guztiz ongi egokitzen euskara bezalako hizkuntza baten irakaspenera eta irakasleak ez daude prestatuta horretan jarduteko (Garcia-Azkoaga, Diaz De Gereñu, Imaz, Alegria, 2010). Ildo horretatik, ahozkoa oraindik objektu irakasgarri izatetik urruti egotearekin lotzen du arazoa Diaz de Gereñuk (2017) eta gaineratzen du, teoriarik gauza asko proposatu arren praktikan eredurik ez dela ematen eta beraz, ezinezkoa dela irakasleak lan hori guztia egitea. Garcia-Azkoaga eta bestek (2010) egindako ikerketa batean erakutsi zuten, Bigarren Hezkuntzako testuliburuak oraindik ez daude prest ahozkoa modu sistematikoan lantzeko. Ahozkoa irakatsi, irakasten da, baina bideak hobetu daitezke: “ahozkoa irakaskuntza-objektu den aldetik eta ikaskuntza-baliabide nahiz harremanetarako beharrezkoa den aldetik, modu berezitan landuko duen didaktika-ikuspegia garatu beharra dago” (Diaz de Gereñu, 2017: 117).

Gainera, izaera ezberdineko alderdiak elkarrekin lantzen direla ohartarazten gaitu Diaz de Gereñuk (2017). Eta horren arazoa begi-bistakoa da: testuinguruak baldintzatzen ditu ahozkoa gidatzen duten osagaiak eta “berriz aurkitzen gara mintzaira-jardueren araberako testu-generoaren ikuspegiaren garrantziarekin” (117.or.). Hau da, komunikazio-egoera ezberdinetan testu-genero bakoitzak modu independentean jokatzeko

du eta egokitzapenak egin behar dira. Ozaeta eta Garrok (2010) dioten modura, ahozkoa ez da beti bat eta bera eta komunikazio-egoerara egokitu behar du, etengabe erabaki batzuk hartuz. Izan ere, “gogoratu behar dugu genero batean egindako lanketak ez duela bermatzen beste komunikazio-egoera batzuei egoki erantzuteko baliabide linguistiko-diskurtsiboen jabe izango denik ikaslea” (Ozaeta, Garro, 2010:25).

Bestalde, euskararen erabileran ahozko gaitasunak bereganatzea faktore garrantzitsua denez, eskolak ahozkoaren erabilerara sustatu dezakeela ikusi da (Garcia-Azkoaga, 2015). Honelaxe dio Diaz de Gereñuk (2017: 116):

“[...] hezkuntza-sistema arrakastatsua izango da baldin eta eskolak euskara hitz egiteko gai eta batez ere hitz egin nahi duten ikasleak hezten baditu. Kontuan hartuta gure sisteman ikasten duten ikasle askok eskolan baino ez dutela euskaraz aritzeko modua, euskararen biziberritzean eskolak duen egitekoa garrantzitsua da erabat”.

Hala ere, gauzak hobetuz doaz denborarekin eta irakaskuntza molde berriek bide emango diote ahozkoaren lanketa egokiago bati. Azkenik, Olasagarre eta Mugertzak (2015) honakoa gaineratzen dute: “argi dago, ahozkoa, curriculumaren atal inportantea izanda, sistematikoki planifikatu eta landu behar dela eta irakasleen arteko koordinazioa, elkarlana eta gelako esperientziak partekatzeko beharra dagoela” (97.or.).

## 2.2.2 Ahozko hizkuntza lantzeko sekuentzia didaktikoak

### 2.2.2.1 Tolosako laborategia

12-16 urte bitarteko tolosar gazteen ahozko hizkuntza hobetzea eta adin honetan eskolan horretarako SDak esperimentatzea helburu duen proiektua egin da 2010-2011 ikasturtetik hona Tolosako 3 ikastetxetako DBH4ko ikasleekin (Zabala, 2012; 2013; 2015). Proiektuan ikertzaileak eta irakasleek lagundu dute eta esperimentuaren jarraipen zehatza ari dira egiten, ondorio eta hutsune nagusiak identifikatuz.

Hiru etapatan banatu dute lana: lehenik, diagnostikoa egin, ondoren, material didaktikoa sortu eta hura martxan jarri, eta azkenik, lanketak izandako emaitzak aztertu.

Haien proiektuaren oinarrian Ginebrako Unibertsitateko (Dolz & Schneuwly, 1997; Dolz & Gagnon, 2010) eredia dago. Beraz, aurre-testua eta ondo-testua eskura izanik, bertatik atera dituzte emaitza nagusiak, “ikusi nahi izan baita ikasleen ahozko ekoizpenak zertan eta zenbateraino hobetu diren” (Zabala, 2015:8). Hainbat genero landu dituzte: kontaketa, argumentazioa, instrukzioa, azalpena edo elkarrizketa, besteak beste...

Bestalde, erregistro informala lantzeari ere garrantzia eman diote. Eskolan asko lantzen den eremua ez den arren, hori lantzeko beharra ikusi da proiektuan eta esparru informaletako hizkuntzak euskararen egoeran izan ditzakeen ondorioak ikusi nahi izan dituzte.

Ikerketaren emaitzei dagokienez, orokorrean ongi baloratu da esperimendua. Zabalak (2013,2015) adierazten duen moduan ikasle eta irakasleak ohartu dira SDen bidezko lanketak ahozkoa garatzen lagundu duela. Are gehiago, aurre-testutik ondo-testura hobekuntzak egon direla azpimarratu dute ikasleek. Bestalde, irakasleak oso pozik agertu dira material didaktikoan egindako hobekuntzekin; askoz erosoago sentitu dira ikasgelan ahozko euskara irakasteko garaian. Esperimenduak ahozko hizkuntzaren motibazioan eta planifikazio egokian eragin positiboa izan duela baloratzen dute ikertzaileek. Hala ere, Zabalak (2013) gogorarazten duenez eremu akademikoan ahozko hizkuntzak oraindik ez du behar adina leku eta horretarako garrantzitsua da irakasleen formakuntza eta material berria sortzea.

#### 2.2.2.2 Euskara bultzatzeko esperientziak Nafarroako Irakaskuntzan

Nafarroako ikastetxeei zuzenduta, hainbat sekuentzia didaktiko sortu eta esperimendatu dira ikasleak ahozko jardunean trebatzeko asmoz eginak (Olasagarre & Mugertza, 2015). Web orrialde honetan topa daitezke SDak, baita hauen esperimenduari lotutako esperientziak eta emaitzak ere: <https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/ahozko-hizkuntza-irakastea/home/ibilbidea>

2010/11 ikasturtean hasi ziren lanketa hau egiten Nafarroako ikastetxe ezberdinetan Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako ikasleekin. Helburu nagusia ikasleek ahozko gaitasunak barneratzea zen eta horretarako oinarri didaktikoak finkatzen ahalegindu da ikertaldea.

Lantzeko bi adar nagusi identifikatu dituzte: euskararen aldeko jarrera positiboan eragitea, batetik, eta bestetik, ikasleak ahoz erraz eta gustura aritzeko bideak eskaintzea. Horrela, ahozkoa landu nahi duen irakasle ororen eskura jarri dituzte SDa osatzen duten jarduerak, ebaluazio-irizpideak, aurre-testua eta ondo-testua egiteko moduluak... (Olasagarre & Mugertza, 2015). Adibidez, Aralarko Mikel Donea ikastetxean DBH 2 ko ikasleekin egindako SDan, Natur Zientzien arloan jarraibide testu generoen ekoizpena lantzen da eta mikroskopioaren erabilerari buruzko azalpena egin beharko dute ikasleek.

Lorpenei dagokienez, ahozkoari lanketa berezi bat eskaini diotela azpimarratzen dute. Izan ere, esperimentuak emaitza onak ematen dituela ikusi dute eta ikasleengan motibazioa eta autonomia lortu dutela gaineratzen dute. Bestalde, gelan jendaurrean hitz egitea eta parte hartzea sustatu dela ohartu dira. Azkenik, irakasleen prestakuntzan aurrera egin dutela onartu dute (Olasagarre & Mugertza, 2015).

## 2.3 Jendaurreko ahozko bidaia proposamena

### 2.3.1 Zer da? Eta nola irakatsi?

Dolz eta Schneuwly-k (1998) eta Garcia-Azkoagak (2009) ahozko azalpena testu-genero formal gisa ikusten dute eta bertan, jakintzen edo ezagutzen transmisioa da garrantzitsuena. Hau da, ekoizleak hartzaileak ez dakien informazio bat du eta bere eginkizuna hari helaraztea izango da. Gisa horretako testu-generoak aurretik prestatuak daude eta espezializatuak dira; ez baita ahaztu behar ahoz egiten den arren, ez direla bat-batean ekoizten, lehenagotik landuta daude. Egoerak eskatuta, gainera, zenbait ezaugarri formal eta konbentzional dituzte.

Ahozko azalpen testua sortzerako garaian, testuinguruak berebiziko garrantzia du, erabat baldintzatzen baitu mintzajarduna, eta ez dira edukiak soilik kontuan hartu beharrekoak, ekoizpen-egoera ere bai. Hala nola, gaia, hartzailea, azalpenaren denbora eta modua, edukiak, baliabide lexiko eta diskurtsiboak... Izan ere, azalpeneko edukiaz hartzaileak daukan ezagutza kontuan hartu beharko du ekoizleak bere azalpena sortzerakoan (Garcia-Azkoaga, 2009).

Azalpen testuaren ezaugarriei dagokienez, monologala da: “azalpen-testua bakarriketazkoa da, ekoizle batek sortzen duena entzule jakin batzuk kontuan harturik” (Garcia-Azkoaga, 2009: 182). Dolz eta Schneuwly-k (1998), beste zenbait ezaugarri aipatzen dituzte, hala nola, egoera komunikatibo bipolarra, hots, entzulea eta hartzailea leku eta momentu berean daudelako.

Azalpenak nahitaez ordenatuta egon behar du, bere funtzioa bete dezan:

“La planification d’un exposé oral exige d’abord de procéder à un tri des informations disponibles, à des regroupements des éléments retenus et, enfin, à leur hiérarchisation en distinguant les idées principales des idées secondaires dans le but de garantir une progression thématique claire et cohérente en fonction de la conclusion visée” (Dolz & Schneuwly, 1998:144).

Ekoizleak informazioa sailkatzen duenean, lehen mailako eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu eta hierarkizazio horrekin, ideien kateatze egoki bat lortzen da gaiaren garapena modu argi batean egiteko.

Dolz eta Schneuwly-k (1998) zerrendatzen dituzten ahozko azalpenaren dimentsio irakasgarriak honakoak dira:

Batetik, egoera komunikatiboa dago eta haren osagaiak dira hemen irakasgarri. Hain zuzen ere, ekoizlearen eta hartzailearen rola, testuaren helburua eta ekoizpenaren egoera soziala. Ekoizlea irakaslearen rolean/aditu paperean jartzen da eta jendaurrean, entzule batzuei gai baten inguruko jakintza transmititzen die. Aurretik zer dakiten kontuan hartuta, ekoizleak gai izan beharko du bere azalpena egokitzeko. Hau da:

“tendre à aplanir ainsi la dissymétrie initiale des savoirs qui distingue les deux actants de ce contexte de communication. Pour ce faire, l’exposant doit d’abord construire un problématique en tenant compte de ce que les auditeurs savent déjà sur le thème” (Dolz & Schneuwly, 1998:143)

Bestalde, edukien transmisio egokia ziurtatzeko ekoizleak komunikazioa bermatzen duten baldintzak ezagutu behar ditu, hots, testuaren helburua eta ekoizpenaren egoera. Hartzaileak, berriz, galderen eta begiraden bidez azalpena ulertzen/jarraitzen duela adierazi beharko dio ekoizleari (Dolz & Schneuwly, 1998).

Bestetik, ahozkoaren barneko antolaketa dago. Atalak ordenatuta egon behar dute eta informazioa sailkatu egin behar da. Autoreek (Dolz & Schneuwly, 1998) zazpi fase bereizten dituzte eta honakoak fase bakoitzaren eginkizun nagusiak:

- Zabaltze fasea: agurra, publikoarekin kontaktua.
- Gaiaren aurkezpena: gaia zein izango den adierazten da eta baita helburu nagusia ere. Gai hori hautatzearen arrazoiak azalduko dira eta entzulearengan interesa pizten saiatuko da.
- Aurkezpenaren antolaketaren azalpena: azalpenean zehar jarraituko den ordenaren berri eman.
- Gaiaren garapena: azalpeneko gaiak eta azpigaiak jorratu.
- Laburpena eta argudiaketa: azalpenaren sintesia egin eta ideia nagusiak azpimarratu. Bidaia proposamenaren aldeko argudioak eman.
- Itxiera fasea: entzuleari eskerrak eman eta berau agurtu.

Hirugarrenik, hizkuntzazko osagaiak. Generoak berak, ikasleari beharrezko dituen hizkuntza unitateak jartzen dizkio eskuragarri eta honakoak dira:

1. Erreferentzia baliabideak: *Xri buruz hitz egingo dut, azalpenaren atalak honakoak izango dira, eskema hau jarraituko dut...*
2. Testu antolatzaileak:
  - 2.1 Hurrenkerakoak: *hasteko, ondoren, jarraian, gero, bukatzeko, lehenik, bigarrenik, azkenik...*
  - 2.2 Emendiozkoak: *gainera, ez hori bakarrik, baita ere, bestalde, honez gain...*
  - 2.3 Aurkaritzakoak: *hala ere, baina, ordea, aldiz, berriz...*
  - 2.4 Arrazoa adieraztekoak: *-lako, bait, -z gero, -gatik, -tzeko...*
  - 2.5 Adibideak ematekoak: *adibidez, esate baterako, hala nola...*
  - 2.6 Laburpena eta ondorioak adieraztekoak: *ondorioz, konklusio gisa, laburbilduz, beraz...*
3. Birformulatzaileak: *: beste hitz batzuekin esanda, beste modu batera azalduko dut, honekin esan nahi dut, hau da, hots...*
4. Polifonia: *besteen ahotsa ekartzea (adituak, irakasleak, herritarrak...)*
5. Modalizatzaileak: *gaiari buruz egindako iruzkin edo balorazioak*

Testu antolatzaileak testua sortzerako garaian linealtasun bat lortzeko balio dute. Ideiak modu argian ordenatzeko balio dute eta gainera, egituraren berri ere ematen digute (Larringan, 2009).

Birformulatzaileei dagokienez, lehenago aipatutakoa laburtzeko, bukaerako ondorioak egiteko, norberaren iritzia indartzeko eta nabarmentzeko erabiltzen dira (Idiazabal, 2000): “hiztunak birformulatu egin behar izaten du behin baino gehiagotan eta behin eta berriro esandakoa, bai berak bai entzuleak esandakoaren hariari errazago jarraitzeko eta informazioa prozesatzeko nahikoa astia izateko” (Larringan & Idiazabal, 2008: 33).

Larringan eta Idiazabalek (2008) errepikapenak eta erredundantziekin lotzen dute birformulazioa eta memoriak sortzen dituen arazoak gainditzeko erabiltzen dira, hiztunari ulermena errazteko.

Modalizatzaileen bidez hiztunak esaten duenaren inguruan zein jarrera hartzen duen adierazten da. Hots, testuaren edo egoera komunikatiboaren aurrean duen



portaeraren berri ematen digute modalizatzailerak eta beraz, ez da kontuan hartzen zer esaten den, nola esaten den baizik (Idiazabal, 2000).

Modalizatzailerak ezberdin asko dauden arren (zalantza, ziurtasuna, probabilitatea, desioak, erregiak, estimua... adierazten dutenak), lan honetan balorazio positiboa egiten dutenak hartuko ditugu kontuan, hau da, bidaia proposamenaren argudio zatian ikasleengan eragingo dutenak.

Azkenik, Dolz eta Schneuwly-ren (1998) ustez, hizkuntza unitatez gain hizkuntzakoak ez diren baliabideak ere kontuan hartu behar dira. Ahozko komunikazioa baldintzatu dezakete elementu hauek eta baita esaten ari garena baieztatu edo ukatu ere, alegia, ahoz zerbait esaten dugunean baina gorputzarekin beste bat, kontrakoa (Ozaeta & Garro, 2010). Beste modu batera esanda, gorputzaren oharkabeko zenbait mugimendu/zeinuk hizlariaren egoeraren berri eman dezakete inolako unitate-linguistikorik erabili gabe (Dolz & Schneuwly, 1998). Gainera, entzulearen arreta eusten eta testua bera antolatzen ere lagundu dezakete (Ozaeta & Garro, 2010).

Dolz eta Schneuwly-k (1998) bost kategoria bereizten dituzte: alderdi paralinguistikoak (isiluneak, barrea, bolumena, hitzen enfasia...) alderdi kinesikoak (mugimenduak, begirada trukeak, aurpegiko mimika, postura...), hizlariaren posizioa (espazioa betetzea, hartzailearekiko distantzia...), kanpoko itxura eta espazioaren antolaketa.

Autoreek, gauza batez ohartarazten gaituzte:

“Orobat, ezin dugu ahaztu hitzezkoak ez diren alderdiak kulturalak izan ohi direla, eta desberdin interpretatzen dira keinuak, distantzia fisikoak, begiradak eta abar munduan, han eta hemen. Izaera kultural hori ere aintzat hartu behar dugu, gure eskoletako aniztasunari erreparatuz” (Ozaeta & Garro, 2010:30).

Hau da, kode hauen adierazpen moduak oso anitzak dira bai espazioan eta baita denboran ere eta beraz, hizkuntza batetik bestera kodeen interpretazioa aldatu egiten da (Dolz & Schneuwly, 1998).

Ahozko azalpena testu-genero gisa hartzen dugunean eta irakasgai bihurtzean ezaugarriak ez dira behar bezala lantzen. Edukia soilik ebaluatzen da, baina azalpena bera ere kontuan hartu behar da (Diaz de Gereñu, 2017; Garcia-Azkoaga, 2015). Beraz, ikasleak trebatu behar dira eta egoera horretan jarduteko baliabideak barneratuko dituzte.

Garcia-Azkoagak (2009) jendaurreko ahozko azalpenaren lanketa egiten du unibertsitateko irakasle ikasketetako ikasleekin eta interesgarria suerta dakiguke haren ideia batzuk hona ekartzea.

Ahozko azalpenak oso ohikoak dira hezkuntzan eta Garcia-Azkoagak (2009) dioskun moduan, edozein irakasgaiko azalpena erabil genezake testu-genero horren ezaugarriak lantzeko eta ekoizpena hobetzeko.

Garcia-Azkoagaren (2009) proposamenean taldeka zein bakarka egiteko jarduerak daude: batetik, edukia hautatzekoak eta bestetik, testu-generoaren ezaugarriak barneratzekoak. Amaieran, ebaluaziorako jarduerak ere eskaintzen ditu. Ikerketaren helburua, beraz, bikoitza da. Hizkuntza landu, eta kasu honetan, ahozko azalpena, eta ahozkoaren konplexutasunak eta haren garrantzia ulertzen saiatu.

Sekuentzia didaktikoa lautan banatu du: testuinguratzea, behin-behineko ekoizpena, behin betiko ekoizpena eta ebaluazioa. Bi ekoizpen egotea azpimarratzen du, horrela bilakaera ikusten baita eta jakintzen eraldaketa gertatu den edo ez ikusten dute (Garcia-Azkoaga 2009).

Testuinguratzean proiektuaren azalpena eta kontestualizazio orokorra egiten da, helburuen azalpena ematearekin batera. Bestetik, testu-generoaren aipamena ere egiten da, kasu honetan ahozko azalpenarena. Modu horretan, testu-generoaren ezaugarrien berri ematen da, informazioa biltzen da, eztabaidak egiten dira... Azkenik, bildutako informazioa aukeratu eta edukiak ordenatzen dituzte.

2. urratsean behin-behineko ahozko azalpena egiten da. Grabatu egingo da eta ondoren hausnarketa egingo da, hobetu ditzaketen alderdiak identifikatuz. Behin betiko ahozko azalpena grabatuko da jarraian. Azkenik, 4. urratsean autoebaluazioa egingo da. Egindako grabazio batzuk gelan ikusiko dira eta izandako aurrerapenak ikusiko dira.

#### 2.4 “Tribuaren berbak” sekuentzia didaktikoetan ahozko euskararen lanketa

“Tribuaren Berbak” 2013.urtean hasitako Euskal Telebistako saio bat izan zen. Euskararen inguruko interesa piztea zen helburua, hizkuntzarekin gozatuz, eta ikusleak harrituz, betiere modu atsegina eta alaietan (eimakatalogoa). Kike Amunarriz zen euskarari eta komunikazioari buruzko programa honen aurkezlea.

Saioa ikasgeletara ekartzeko asmoz "Hizkuntzen mundua eta euskara deskubrituz" izeneko SDak sortu dituzte euskara ikasgaiaren material osagarri gisa erabiltzeko.

Proiektuaren egileak Kike Amonarriz Gorria, Iñaki Zapirain Retegi eta Josune Zabala Alberdi dira nagusiki eta honela definitzen dute proiektuaren nondik norakoa: “Curriculum”eko gaiak aztertuta, soziolinguistika lantzeko material gutxi dagoela ikusita, interesgarria iruditu zaigu ETB1eko “Tribuaren Berbak” programan landutako edukiak eta dagoen materiala, material didaktiko osagarri gisa lantzea” (eimakatalogoa).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako pentsatutako materiala da, nahiz eta atal asko, Batxilerrerako, Unibertsitaterako, Lanbide Heziketarako edo euskaltegietarako ere erabilgarriak diren. Lan taldeak dioskun moduan, “Sekuentzia didaktikoen metodologian oinarrituta (Dolz & Schneuwly 1997) eta egitura kooperatiboak erabiliz, ikasleak inguraten dituen errealitate soziolinguistikoaz jabe daitezten, eta eleaniztasunaren eta euskararen aldeko jarrera aktiboa izan dezaten sustatuko da” (eimakatalogoa). Modu horretan, taldean lan eginez honako gai hauek jorratuko dituzte: errealitate soziolinguistikoa, euskara eta eleaniztasuna... Gelako eta ikasleen aniztasuna kontuan hartuko da eta ikasitako guztia komunikatzen jakitea garrantzitsua izango da (eimakatalogoa).

Guztira 10 SD dira eta bakoitzean gai bat lantzen da. Hiru ardatz nagusiren inguruan egingo da lan: eduki soziolinguistikoak (adibidez: erregistroen arteko ezberdintasunak, aisialdian euskararen erabilera, hiztun berriak), helburu komunikatiboak (hala nola, jendaurreko aurkezpena, hiztegi eleanitza, gaiari buruzko debatea) eta talde kooperatiboak (esate baterako: arkatzak erdira, 1-2-4, orri birakaria). Hiru ardatzak langai direnez, ebaluazio-gai ere izango dira. Ebaluazio-irizpideak lankoadernoan (ikus 1. Eranskina) daude eta SDan zehar ikasitakoa baloratzeko balio dute.

Sekuentzia guztiek, tribuaren berbak programako bideo-zatiak izango dituzte oinarri (elkarrizketak, irudiak). Bestelako zenbait baliabide ere zerrendatzen dira: arbel digitala, ordenagailu eramangarria, internet, bideo-kamerak, mikroak, proiektoreak, etab.

Irakasleek gida baten laguntza daukate eta bertan, jarduerak gauzatzeko azalpenak agertzen dira eta baita haienzako informazio osagarria ere. Gida didaktiko osoa 2. eranskinean dago.

Material didaktiko honek 8 helburu nagusi ditu, hala nola, euskarari eta Euskal Herriko eleaniztasunari buruzko oinarritzko ezagutza soziolinguistikoa ematea edo ikaslearen bizi inguruneko errealitate soziolinguistikoa ikuspegi kritikoz interpretatzea eta hizkuntza aniztasunaren inguruko balioak sustatzea. Oinarritzko gaitasun edo kompetentziei dagokienez, komunikatzeko gaitasuna, gizarte kompetentzia... aipatzen dira

<http://www.eimakatalogoa.eus/20962/tribuarenberbak/proiektua.html>)

SD bakoitzerako, 6 fase<sup>1</sup> bereizi dituzten egileek:

0. Fasea: egoera komunikatiboaren aurkezpena. Helburua adierazi ikasleei.
1. Fasea: testua inguratzea. Irakas objektua identifikatuko da, ikasleen gabezietatik abiatuta.
2. Fasea: garapen fasea. Informazioa bildu eta azken xedea landu.
3. Fasea: gauzatze fasea. Azken proiektua gauzatzeko beharrezko ekintzak egin.
4. Fasea: xedea ekoiztea eta plataformara igotzea.
5. Fasea: ebaluaketa. Ebaluazio-irizpideetan oinarritutako ebaluaketa formatiboa egin.

Proiektuaren zuzendariek honako eskema bat proposatzen dute sekuentziaren egitura irudikatzen:



3. Irudia: “Tribuaren Berbak”-eko sekuentziaren egitura. Iturria: eimatalogoa

Ikus daitekeenez 6 fasetan banatuta dago SDa eta fase bakoitzak nolabaiteko lotura du aurreko eta hurrengo fasearekin. Gainera, aipatzekoa da lehenengo eta azken fasea elkarren artean lotuta daudela. Izan ere, testua inguratzean dituzten aurrezagutzak aipatzen dituzte eta ebaluazioan, SDan ikasi dutena zerrendatzen dute. Horrela prozesua eta izandako aldaketa ebaluatuz.

### 3. ALDERDI PRAKTIKOA

#### 3.1 *Batua eta euskalkiak* sekuentzia didaktikoa aztertzen

##### 3.1.1 Aurkezpena

*Batua eta euskalkiak* izeneko sekuentzia didaktikoa 8 saiotarako prestatutako gida da eta DBH 1-2-3-4 adin tarterako dago pentsatuta. “Euskara batua eta euskalkiak: funtzioa

<sup>1</sup> Faseen azalpena 3. Eranskinean dago

eta elkarren arteko bateragarritasuna” da gaia eta azken xedea, berriz, honela definitzen dute:

“batetik, hizkuntzak, dialektoak, euskara batua eta euskalkiak, zer diren ezagutzea eta bereiztea. Euskara batua noiz eta zertarako sortu zen eta batuaren eta euskalkien arteko funtzio banaketa zein den azaltzea. Eta bestetik, ikasleena ez den euskalki bat hitz egiten den herri baterako txangoa prestatzea” (eimatakatalogoa).

Landuko diren kompetentziak eta zehar kompetentziak zerrendatzen dituzte proiektuaren egileek. GRAL honen helburuari lotuta “hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia, eta teknologia digital eta mediatikoa erabiltzeko kompetentzia: komunikatzen jakitea” izango da kontuan hartuko duguna eta zehar kompetentzietan, berriz, “hizkuntza komunikaziorako kompetentzia: hizkuntzak eta Literatura”-ri erreparatuko diogu (eimakatalogoa). Hala ere, 4.eranskinean ikus daiteke kompetentzien eta zehar kompetentzien zerrenda osoa.

Aurrez esan dugu proiektuak 8 helburu zituela, bada *batua eta euskalkiak* SDan horietatik 6 aipatzen dira. Denak aipatuko ez ditugun arren, 3. helburua hona ekartzea garrantzitsua da: “beste ikasleekin elkar eraginez, hausnartuz eta eztabaidatuz, ahozko ekoizpena lantzea eta ikusentzunezko baliabideak eta teknologia berriek eskaintzen duten informazioa erabiltzea” (eimakatalogoa). Gehiago ikusteko jo 5.eranskinera.

### 3.1.2 Analisia

Jarraian, *Batua eta Euskalkiak* SDaren analisia faseka egingo dugu.

0.fasea egoera komunikatiboaren aurkezpena da eta bertan gaia eta helburua aurkezten da. Euskara batuaren eta euskalkien berri izango dutela adierazten da eta helburua txango bat prestatzea izango dela. Aurrezagutzak aktibatzekeo dinamikak egiten dira (bideoak, galderak...), bai edukiaren inguruan eta baita azken proiektuaren inguruan ere.

1.fasea testuinguratzea da. Taldeko jarduera batzuen bidez dakitenaren kontzientzia hartu eta ikasteko beharrak identifikatuko dituzte. Galderen erantzunak lehenik, talde txikian partekatuko dituzte eta hurrengo jardueran, talde handian elkartuko dituzte ondorio batzuk ateraz. Gaiaren inguruan (zenbat euskalki ezagutzen dituzu? Non hitz egiten dira?, Euskalkien mapa...) eta azken proiektu komunikatiboaren inguruan (Euskal Herrian ezagutzen dituzten herrien zerrenda, egindako txangoak gogoratu...) egingo

dituzte jarduerak. Azkenik, txangorako proposak izan daitezkeen herriak zein diren aipatuko dituzte.

Garapen fasea da hurrengoa eta 6,7 eta 8 jardueretan informazioa bildu beharko dute euskalkiei, euskara batuari eta txangoiei buruz informazio iturri ezberdinak erabiliz (mapak, bideoak, wikipedia). Horrela gaiaren eta helburuaren inguruko informazioa osatzen joango dira. Ondoren, ikasleak talde txikitik jarriko dira eta herri bat aukeratu beharko dute txangoa egiteko. Jarraian, bisita-eguna antolatzen hasiko dira (aisialdi-eskaintza, euskalkien informazioa emango duen pertsona lotu, bazkaltzeko lekua...). Fase honetako azken jardueran euskara batuari buruzko elkarrizketa bat ikusiko dute zer den argitzeko asmoz eta jarraian, horren inguruko eztabaida planteatuko da.

3.fasea gauzatze fasea da. Aurreko jarduerako ondorioak partekatu ondoren, gelako joera nagusiak identifikatu eta multzokatuko dituzte (batuaz bakarrik egiten dutenak, nagusiki euskalkia darabiltenak eta biak erabiltzen dituztenak). Ondoren, bideo bat ikusiko dute Euskal Herriko eremu ezberdineko 3 gaztek batuaren eta euskalkien inguruan pentsatzen dutenari buruz. Eztabaida baten bidez edukiak birpasatuko dituzte eta ondoren txuletarioa beteko dute zer ikasi duten ikusteko. 11.jardueran bidaia proposamenak aurkeztu eta bozkatu beharko dituzte. Ahozko azalpenak emateko gida lagungarri izanik, talde bakoitzak bere bidaia proposamenaren azalpena egingo du eta segidan, bozketa burutuko da isilean. Boto gehien dituen lekura egingo da txangoa.

Xedea gauzatuko da 4. fasean. Txangoa egingo da eta eskolako webean kronika egiteko eskatuko zaie ikasleei: argazkiak eta bideoak igo, egunaren erreportajea idatzi, bertako euskalkiaren berri eman... Zerk harritu dituen eta deskubritu dutena ere adierazteko aukera izango dute.

Azken fasean egindako txangoaren egokitasuna aztertuko dute talde handian. Lan guztien ebaluazioa egingo da eta txuletarioa kontuan hartuz, SDan ikasitakoa ebaluatuko da: batetik, gaiari buruzko edukiak (hizkuntza eta dialektoen arteko aldea, euskalkien egoera...) eta bestetik, ahozko azalpenari dagozkionak (esate baterako, ahozko azalpenak eta iritziak emateko baliabideak eta txango baten antolaketa).

Behin sekuentzia azaldurik, haren gabezia nagusiak zerrendatzen saiatuko naiz, ondoren irtenbide bat proposatzeko asmoz.

Ikasleei ahozko azalpenak emateko gida eta iritziak emateko gida eskaintzen zaie, baina ez da inongo momentuan hor agertzen diren elementu zein baliabideen azalpenik egiten. Hau da, bertan agertzen den zerrendan zer egin behar duten agertzen da baina ez da hori nola egiten den erakusten eta ikasleak ez dira horretan jarduten. Esate baterako, azalpenaren faseak (hasierako agurra, azalpenak eta argibideak, emaitzak eta ondorioak, laburbiltzea eta bukaerako agurra) zerrendatzen dira baina ez dira bakoitzaren ezaugarriak, formulak zein diren esaten. Bestalde, arrazoiketarako baliabideak erabiltzea aholkatzen zaie: arrazoiak eman, adibideak txertatu, desadostasuna adierazi... baina horrelakoak ahozkoaren zein ataletan txertatu berriro ere, ez da azaltzen. Funtsean, beraz, esan dezakegu azken proiektua den bidaia proposamena ez dela sekuentzian zehar lantzen.

Ikusi ditugun gabezia edo falta horiez gain, hemen hobetzeko beste bi alderdi ikus ditzakegu: bukaerako jardueran eskatzen den kronika ez da inongo momentuan aipatzen eta hasieran ez dago aurre-testurik. Hau da, kronikaren antolaketa zerrendatu egiten dute (argazkiak, egunaren inguruko erreportajea...) eta ikasleei horrelako bat egiteko esan, inongo eredu edo praktikarik gabe. Eta aurre-testuari dagokionez, ez dago aukerarik lehen ekoizpen hori egiteko, eta beraz, ezta aurre-ezagutzen ebaluaketa testu baten bidez egiteko ere. Hau da, bidaia proposamenaren aurre-testurik ez dagoenez, aurre-ezagutzak ez dira ikasleen hasierako ekoizpen batekin neurtzen, baizik eta zer dakiten galdetuz. Hori dela eta, sekuentzia didaktikoaren haien eredu nolabait aldendu egiten da Dolz eta bestek (1997, 2010) proposatutakotik.

Hala ere, alde positiboak ere azpimarratu behar dira. Eduki soziolinguistikoak eta azalpeneko edukiek, esaterako, badute lekua jardueretan zehar. Izan ere, SD guztian hizkuntzez, txangoez... aritu dira eta gaiarekin lotutako hiztegiarekin harremanetan daudela esan dezakegu. Ikusitako bideoek, elkarrizketek, izandako eztabaidek eta sekuentzia bertako edukiek lagundu dute gaiari dagozkion edukiak barneratzen. Bestalde, ahozko azalpena egiteko gida ematea oso baliagarria da ikasleentzat, eta bertakoa zuzenean lantzen ez den arren, laguntza zerbait ematen zaiela esan daiteke erabili beharreko baliabideak zein diren esanez, adibidez. Azkenik, eredu didaktiko baterako osagaiak ageri dira sekuentzian. Hau da, jarraian egingo den proposamena ez da hutsetik hasi, oinarri batzuk eskaintzen baititu jada *batua eta euskalkiak* sekuentziak.

### 3.2 Proposamena egin

### 3.2.1 Helburua

*Batua eta euskalkiak* SDko bidaia proposamena lantzeko eredu didaktikoa proposatzea.

### 3.2.2 Testuinguru soziolinguistikoa

Sekuentzia hau ingurune euskaldun bateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko D ereduko ikastetxe batentzako dago pentsatuta. Hain zuzen ere, Oiartzungo 15-16 urteko ikasleengan pentsatuta egin da proposamena. Oiartzun Gipuzkoako ipar-ekialdeko udalerri bat da eta euskalkiaren aldetik Zuazok (1998) erdialdekoaren eta nafarraren tarteko eremuan kokatzen du.

### 3.2.3 Eredu didaktikoa

Eredu didaktikoa azaltzeko Dolz eta Schnewlyk (2000) eta Dolz eta Gagnonek (2010) proposatutako generoaren eredu didaktikoan oinarrituko naiz. Eredu didaktikoak generoaren alderdi irakasgarrien berri ematen digu eta honakoak dira osagaiak: komunikazio egoera, edukiak, testu plana, hizkuntzazko baliabideak eta hizkuntzaz kanpoko baliabideak (Ozaeta & Garro, 2010).

GENEROA: bidaia proposamena ikaskideei	
KOMUNIKAZIO- EGOERA	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ekoizleak: ikasleak.</li><li>- Hartzaileak: ikaskideak.</li><li>- Helburua: bidaia proposamena egitea, ondoren herri horretara txangoa egiteko.</li><li>- Mintza-jarduera nagusiak: azalpena eta argudioa.<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Bidaiaren nondik norakoak azaldu.</li><li>✓ Txango hautagaitza argudiatu.</li></ul></li><li>- Modua: ahozkoa.</li><li>- Denbora: 10-15 minutu.</li><li>- Erregistroa: jasoa.</li><li>- Baliabideak: power point, irudiak eta bideoak.</li></ul>
EDUKIAK	<ul style="list-style-type: none"><li>- Txango proposamenean hitz egiten den euskalkia: ezaugarriak, eremua...</li></ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bisita gidatuak: nolakoak/ezaugarriak. Ikusteko gauzak (toki edo monumentu interesgarriak), aisialdi-eskaintza, bazkaltzeko lekua, bertako euskalkiaren berri emango digun pertsona, harremanetarako talde edo ikastetxea...</li> <li>- Egun osoko egitaraua: noiz eta nondik atera eta noiz itzuli.</li> </ul>
TESTU PLANA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zabaltze fasea: agurra.</li> <li>- Gaiaren aurkezpena: gaia eta helburua.</li> <li>- Aurkezpenaren antolaketaren azalpena: landuko diren azpiatalen ordena.</li> <li>- Gaiaren garapena: txangoa egiteko herria deskribatu, bertako euskalkia azaldu, bidaia proposamenaren antolaketaren berri eman: eguna, ordua, garraioa, bisitaren ordutegiak.</li> <li>- Laburpena eta argudiaketa: sintesia eta bidaia proposamenaren arrazoiak. Ikasleak hautagaitza hori bozkatzera konbentzitu.</li> <li>- Itxiera fasea: eskerrak eta agurra.</li> </ul>
TESTUALIZAZIOA: HIZKUNTZA BALIABIDEAK	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Testu antolatzaileak: konexio osagaiak <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hurrenkerakoak: <i>lehenik, bigarrenik, ondoren, jarraian, azkenik, bukatzeko...</i></li> <li>- Emendiozkoak: <i>eta, ere, gainera, bestalde...</i></li> <li>- Arrazoiketa, kausa eta justifikapena adierazteko markatzaileak: <i>-lako, bait, -z gero, -gatik, -tzeko...</i></li> </ul> </li> <li>2. Berformulazioa: <i>beste hitz batzuekin esanda, beste modu batera azalduko dut, hau da, hots...</i></li> <li>3. Bidaiaren ezaugarriei lotutako modalizatzaileak: <i>ederra, zoragarria, paregabea...</i></li> </ol>

HIZKUNTZAZ GAINDIKO BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitzen enfasia argudio atalean.</li> <li>- Esatariaren lekua eta espazioa betetzea power pointa erabiltzerakoan.</li> </ul>
---------------------------------------	--

Ahozko azalpenak emateko gidatik eta iritziak emateko gidatik hainbat hizkuntza unitate hautatu ditut eta haiek lantzeko proposamena egin dut. Horrelako SD batean denak lantzea ezinezkoa da eta bestalde, zuzenduta dagoen testuingurura ere egokitu dut. Hau da, aditzak lantzea, edo erregistro jasoa erabiltzea, esaterako, ez dut beharrezko ikusi kontuan hartuta eremu euskalduneko D ereduko ikasleak direla eta aditzen nahiz erregistroaren erabilera “egokia” jakintzat emango dut.

### 3.2.4 Sekuentzia didaktikoaren egitura

Sekuentzia didaktiko hau “Tribuaren Berbak”-eko 11. jardueran txertatzeko egin da. Hau da, analisisan ikusi dugunez gero, zenbait gauza ontzat eman dira. Hala nola, testuinguratzea, edukien lanketa... Eta horregatik, horien ondoren txertatu nahi izan da proposamen hau. Izan ere, 11.jarduera arte SDan edukia pila bat landu dute, baina orain egokitu egin beharko dute ikasitakoa eta azken proiektuari dagokion lanketa egin, hor ikusi baita hutsune gehien. Lehen tailerra gogorapen moduan egin da, testuingurua berriro ikasleek kontuan hartzeko.

Tailerrak	Helburuak	Jarduerak	Materiala	Denbora
Testuinguratzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektuaren azalpena</li> <li>- Gaiaren aurkezpena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bidaia proposamen baten ahozko aurkezpen bat ikusi, eredu gisa.</li> <li>- Euskalki ezberdinetako audioak entzun</li> <li>- Interesa pizteko galderak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektorea, bideoak, audioa</li> </ul>	45 minutu (aurkezpena 15 min, bideoa ikusi 15 min eta audioak entzun 15 min)
Bidaia proposamenaren aurre-testua ekoiztu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen gaitasunak ikusi ahozko azalpenaren ekoizpenean</li> <li>- Ahulguneak identifikatu</li> <li>- Irakas alderdiak zein izango diren erabaki</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeka jarrita, bidaia proposamenaren ahozko azalpena egiteko prestatu.</li> <li>- Irakasleak aurre-testuaren ebaluazioa egin</li> <li>- Ikaskideen aurkezpenak eta aurre-testuetako</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Power point, irudiak, bideoak, mapak...</li> </ul>	2 klase

		analisiaren ondorioak komentatu talde handian (irakasle eta ikasle)		
1. modulua: bidaia proposamenerako informazioa aukeratu eta egokitu, lehendik landu dutena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azalpenerako informazioa aukeratu eta egokitu</li> <li>- 1.mailako ideiak eta 2.mailakoak ezberdintzen jakin</li> <li>- Txangoa egingo den lekuko euskalkiari buruzko informazioa antolatu</li> <li>- Bisita gidatua: aisialdi-eskaintza, bazkaltzeko lekua aukeratu, garraioa, ordutegiak... erabaki</li> <li>- Euskalkiaren berri emango duen pertsona lortu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Internet, liburuak... informazioa lortu</li> <li>- Oharrak hartu</li> <li>- Informazioa taula batean antolatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordenagailua, entziklopedia, galdeketa</li> </ul>	1 ordu
2. modulua: bidaia proposamenaren planifikazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko bidaia proposamen baten atalak zein diren ikusi</li> <li>- Identifikatzen ikasi</li> <li>- Azalpenaren atalak zein diren ikusi</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bidaia proposamen bat ikusi eta erabilitako informazioa sailkatu eta ataletan sartu</li> <li>- Nahita desordenatuta dauden bidaia proposamen baten idatziko transkribaketa zatiak ordenean jarri, aurreko jardueran landutako ereduaren arabera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Audioa, taula, arkatza, bideoa, bidaia proposamen baten idatziko transkribaketa zatiak...</li> </ul>	1 ordu
3. modulua: azalpenaren egitura egin	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Planifikazioko atal batzuk ekoizten irakastea</li> <li>- "Zabaltze fasea" atalean hizlarien</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bidaia proposamen bateko zabaltze fasearen atala ikusi eta bertako edukiak identifikatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Papera, arkatza, bideoa</li> </ul>	2 klase

	<p>aurkezpena egiten eta bidaia proposamenaren helburua zehazten ikastea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Azalpenaren eskemaren atalean power pointari erreferentzia egiten ikastea (espazioa nola erabili, irudiak nola seinalatu)</li> <li>- Argudio atalean keinu eta begiradekin arreta eusten lortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eguraldiaren bideo bat ikusi irudiak nola erabili jakiteko</li> <li>- Argudio atalean zer den eraginkorra ikusi, zein keinu-begirada</li> <li>- Taldekideekin ikasitakoa praktikan jari eta atal horiek prestatu</li> <li>- Jendurrean hiru atal horiek ekoiztu (zabaltze fasea, aurkezpenaren atalak eta argudio atala)</li> </ul>		
4. modulua: emendiozko testu antolatzaileak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emendiozko testu-antolatzaileak ekoizten ikastea bidaia proposameneko gaiaren garapenaren atalean</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eredugarri izan daitekeen bidaia proposamen batean emendiozko antolatzaileak identifikatu</li> <li>- Emendiozko testu antolatzaileekin hutsuneak bete.</li> <li>- Emendiozko testu antolatzaileak ordezkatu bidaia proposameneko gaiaren garapena atalean.</li> </ul>	- Papera, arkatza, testua	30 min
5. modulua: hurrenkerakoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hurrenkerako testu-antolatzaileak ekoizten ikastea bidaia proposameneko aurkezpenaren atalen azalpenean</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eredugarri izan daitekeen bidaia proposamen batean hurrenkerako antolatzaileak identifikatu</li> <li>- Hurrenkerako testu antolatzaileak ordezkatu bidaia proposameneko azalpenaren eskemaren atalean.</li> </ul>	- Papera, arkatza	30 min
6. modulua: arrazoiketakoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrazoiketako testu-antolatzaileak ekoizten ikastea bidaia proposameneko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eredugarri izan daitekeen bidaia proposamen batean arrazoiketako antolatzaileak identifikatu</li> </ul>	- Arkatza, papera, testua...	1 ordu

	sintesi eta arrazoiketa atalean	- Arrazoiketako testu-antolatzaileak identifikatu bidaia proposameneko argudio atalean. - Argudioak pentsatu - Azalpenean bidaia proposamena defenditzeko argudioak idatzi		
7. modulua: modalizatzaileak	-Modalizatzaileak ekoizten ikastea bidaia proposameneko argudio atalean	- Eredugarri izan daitekeen bidaia proposamen batean modalizatzaileak identifikatu argudio atalean. - Argudio ataleko modalizatzaileak sortu	- Papera, arkatza	30 min
Bidaia proposamenaren ondo-testua ekoitzi	- Sekuentzian zehar ikasitakoa aplikatu	- Bidaia proposamena prestatu - Behin betiko aurkezpena egin	- Pantaila, proiektorea	Aurkezpen bakoitzak 10-15 minutu
Ebaluazioa	- Ikasi dena bildu eta ebaluatu - Azalpena ebaluatu - Hausnarketa	- Txuletarioa bete, ebaluazio-irizpideak jarraituz - Hobetzeko puntuak jarri	- Arkatza, papera, bideoa...	Klase bat

#### 4. ONDORIOAK

Lan honen helburua ahozko bidaia proposamenaren sekuentzia didaktikoa osatzea izan da. Izan ere, ikusi den moduan ahozkoak ez du behar adina leku hartzen irakaskuntzan eta gainera, irakasleak ez daude prest horretarako. Ez zaie inongo momentuan eredurik ematen eta ezinezkoa da ideia teoriko horiek guztiak praktikara eramatea. Gainera, euskararen normalizaziorako tresna garrantzitsu bat da ahozkoa eta horregatik, eskolan ahozkoa objektu gisa irakastea ezinbestekoa da (Diaz de Gereñu, 2017). Ez da soilik irakaskuntzarako bitarteko edo ezagutzak adierazteko tresna, askoz gehiago ere bada. Hala ere, azkenotan ahozkoak hizkuntzaren erabileran eta komunikazioan duen garrantzia ikusita, geroz eta lanketa gehiago egiten dira genero horrekin eta gauzak hobetuz doaz (Garcia-Azkoaga, 2009, 2015).

Modu horretan, proposamen bat egin nahi izan da Ginebrako Unibertsitateko Dolz eta besteren (1997, 2010) ereduari oinarrituta. Testuak, testu-generoak, generoaren eredu didaktikoa eta sekuentzia didaktikoak zer diren ikusi ondoren eta ahozko euskararen eta bidaia proposamena generoaren inguruan ideia zenbait aipatu eta gero, generoaren eredu-didaktikoa eskaini da eta jarraian, hari zegokion sekuentziaren egitura, bere jardura, material eta helburuekin. Hala ere, hastapenetan dagoen proposamen bat da. Hau da, ez dago bukatuta eta hurbilketa bat egin nahi izan da, ideia teoriko zenbait bertan aplikatuz. Azterketa edo lan luzeago batek bide emango luke xehetasun gehiago lantzeko eta gauza gehiago argitzeko.

Bestalde, testatu beharrean dago. Hots, proposatutako jarduerak, ariketak, azalpenak... oraindik probatu egin behar dira ikasgelan eta horren emaitzak ikusi. Horrela, eskolan lanketa egin eta hortik ondorioak atera, sekuentzia nahiz eredu didaktikoa aldatu edo osatzeko. Hala ere, ahozkoa lantzeko gabeziak konpondu direla esan daiteke. Hutsune zenbait ikusi dira eta horiei irtenbidea eman zaie ahozko bidaia proposamenaren eredu-didaktiko eta sekuentzia-didaktiko berria eskainiz, ahozkoa egokiago landua izan dadin.

Lana egiterakoan arazo nagusi batekin egin da topo. Euskararen Didaktika arloa ez nuen egin 3.mailan, Erasmus programa bat tarteko zela eta erronka izan da GRALa egoera horretan egitea. Terminologia eta kontzeptu berriak barneratu dira eta baita hizkuntzen irakaspenerako ikuspuntu berria ezagutu ere.

Aurrera begira, beraz, interesgarria izan daiteke eskolaren batean sekuentzia hau osatzea jardura zehatzekin eta izandako arazo eta topatutako hutsuneetatik sekuentzia hobetzen jarraitzea. Horrela, ahozkoaren lanketan hobetzeko bide berriak irekiz.

## 5. BIBLIOGRAFIA

- Diaz de Gereñu, L (2017) “Eskola bidezko euskararen biziberritzea: arrakastarako baldintzak aztergai” in Goirigolzarri, J., Landabidea, X. & Manterola, I. (2017), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: UEU.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1998), *Pour un enseignement de l'oral. Initiation aux genres formels de l'oral*. Issy-les-Moulineaux: ESF.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1997), “Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suizafrancófona”, *Textos*, 11, 77-98.
- Dolz, J. & Gagnon, R. (2010), “El género textual, una herramienta didáctica para desarrollar el lenguaje oral y escrito”, *Lenguaje*, 38 (2), 2010, 497-527.
- Dolz, J., Gagnon, R., Mosquera, S. & Sánchez, V. (2013), *Producción escrita y dificultades de aprendizaje*. Barcelona: Editorial Graó.
- Eimakatalogoa:<<http://www.eimakatalogoa.eus/20962/tribuarenberbak/proiektua.html>> [2018.06.05]
- García-Azkoaga, I.M. (2007). *Ahozko azalpena unibertsitatean, ezagutzak ebaluatzeko tresna bat baino gehiago. Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako lanak*, Bilbo, EHU.
- Garcia-Azkoaga, I.M.; Diaz De Gereñu, L.; Imaz A.; Alegria A. (2010). “Ahozkotasanaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan”, *TANTAK*, 22, 1, 7-42.
- Garcia-Azkoaga, I.M (2012), “Sekuentzia Didaktikoak eta hizkuntzen Curriculuma: teoria eta praktika”, *Ikastaria* 18, 5-11, in Garcia-Azkoaga, I.M.; Idiazabal, I. & Larringan, L.M. (koord.) (2012), *Ikastaria*, 18, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- Garcia-Azkoaga, I.M. (2015). “Ahozko euskara, ikerketarako unibertsoa”. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 96 (3). 11-28.
- Garcia-Azkoaga, I.M. & Manterola, I. (2016), “Las secuencias didácticas de lengua: una encrucijada entre teoría y metodología”, *Calidoscopio*, vol. 14, nº1, 46-58.
- Idiazabal, I. (2000) " Hizkuntza trebetasunen transferentzia programa elebidunetan", *Ikastaria*, 12, 143-154.

- Larringan, L.M. & Idiazabal, i. (2008) "Ahozko hizkuntzari antza hartzeko hiru gogoeta" in *Euskalgintza XXI. Mendeari buruz XV. Biltzarra. Hizkuntza gaiak*. Iker 19, Bilbo: Euskaltzaindia, 29-38.
- Larringan, L.M. (2009), "Testua, testu-generoa eta hizkuntzaren ikas / irakaskuntza", *Euskera*, 54: 2-1. zatia, 505-539.
- Larringan, L.M. & Idiazabal, I. (2012), "Sekuentzia didaktikoa: ekintza didaktikoaren zutabe eta ardatz minimoki fidagarria", *Ikastaria* 18, 13-44.
- Olasagarre, J. & Muguertza, E., (2015), "Euskara bultzatzeko esperientziak Nafarroako Irakaskuntzan: motibazioa eta ahozkoa". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 96 (3): 69-101. Soziolinguistika Klusterra Elkarte. Andoain.
- Ozaeta, A. & Garro, E (2010), "Nola bihurtu ahozkoa irakasgarri? Generoetan oinarritutako proposamen baterantz", *Hik Hasi Monografikoa* 25, 23-31.
- Perez, K. & Garro, E. (2010), "Jendaurreko ahozko aurkezpenen lanketa irakasle ikasketetako ikasleekin", *HIK HASI monografikoa*, 25, 32-40.
- Zabala, J, (2012) *Ahozko konpetentziak derrigorrezko bigarren hezkuntzan: sekuentzia didaktikoak Tolosako laborategian*. *Ikastaria*, 18: Sekuentzia didaktikoak eta hizkuntzen curriculum: teoria eta praktika / Secuencias didácticas y currículo de lenguas: teoría y práctica. (Apail.) / (Coord.): I. Idiazabal, I. Garcia-Azkoaga, Luis M. Larringan.179-193.
- Zabala, J, (2013) "Ahozko hizkuntza derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Esku hartzea eta ikasleen garapena Tolosako esperientzian", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 87-88 (2-3): 127-148. Soziolinguistika Klusterra Elkarte. Andoain.
- Zuazo, K., 1998, "Euskalkiak, gaur", *FLV* 78, 191-233.



## 6. ERANSKINAK

### ERANSKINA 1

#### JARDUERAK

#### 2. JARDUERA: ZER ALDE DAGO HIZKUNTZEN ETA DIALEKTOEN ARTEAN?

HIZKUNTZAK VS DIALEKTOAK	
<b>Hitz egiten diren eremu geografikoa</b> Zeintzuk hitz egiten dira eremu geografiko zabalagoetan, hizkuntzak ala dialektoak?	
<b>Ulegarritasuna</b> Zer ulertzen da hobeto, beste hizkuntza bat ala beste dialekto bat?	
<b>Botere politikoa</b> Zein lotuko zenuke botere politikoarekin?	
<b>Bereizteko aldagai nagusia</b> Zein da batzuk eta besteak bereizteko aldagairik garrantzitsuena?	
<b>Bereizteko erraztasuna</b> Hizkuntzen eta dialektoen arteko bereizketa garbia da ala lausoa da?	

### 3. JARDUERA: OINARRIA FINKATUZ

HIZKUNTZAK VS DIALEKTOAK: ONDORIOAK	
Hitz egiten diren eremu geografikoa	
Ulegarritasuna	
Botere politikoa	
Bereizteko aldagai nagusia	
Bereizteko erraztasuna	

### 4. JARDUERA: EUSKALKIEN MAPA OSATZEN

TALDE HANDIAN EZTABAIDATZEKO	
Zenbat euskalki ezagutzen dituzu? Non hitz egiten dira?	
Zure herrian zein euskalki hitz egiten da?	
Eta zure familian? Eta zure etxean?	

**Kokatu ezagutzen dituzuen euskalkiak mapan 1-2-4 teknika erabiliz.**

**BANAKA**



**BINAKA**



**LAUNAKA**





<b>KONPARA ITZAZUE BI MAPAK ETA GALDERA HAUEK ERANTZUN</b>	
Zenbat euskalki daude?	
Nola banatzen dira lurralde desberdinetan? Euskalkiak eta lurraldeak bat al datoz?	
Hitz egiten diren eremu geografikoen tamaina berdina al da?	
Non galdu eta non zabaldu dira euskalkiak? Zein euskalki?	
Non aldatu dute euskalkiz?	
Euskalkiak izendatzeko modu bera al darabilte bi mapek?	
Zer hitz egiten da euskalkien kolorerik ez duten eremuetan?	

## **7. JARDUERA: TXANGO BAT EGITEKO PROPOSAMENAK**

<b>HERRIAREN INTERESGUNEAK</b>
(Herrian edo zonaldean ikusi edo bisitatu genitzakeen lekuen zerrenda osatu.)
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Zein da bertako aisialdi eskaintza? Zer egin daiteke bertan?</li>   <li>● Non bazkaldu genezake?</li>   <li>● Nora joan gaitezke bertako euskalkia entzutera?</li>   <li>● Ba al da harremanetan jartzeko moduko talde edo ikastetxerik?</li> </ul>

- Zein toki edo monumentu interesgarri ikus daitezke?

## EGITARAUA

(Zehaztu ordutegia, lekuak eta egin beharrekoak)

- Noiz eta nondik atera.
- Goizeko egitaraua: zer ikusi eta euskalkiaren berri emango diguten bisitak.
- Non eta zein ordutan bazkaldu.
- Atsedenaldea noiz arte.
- Arratsaldeko egitaraua: zer ikusi eta euskalkiaren berri emango diguten bisitak.
- Bazkaltzeko eta atsedenaldirako lekua.
- Noiz eta nondik abiatu itzulera.
- Noiz eta nora iritsi.

## 8. JARDUERA: BAINA ZER DEMONTRE DA EUSKARA BATUA? ETA GUK ZER DARABILGU?

- Zer da euskara batua? Zer da hizkuntza estandarra?
- Noiz eta zertarako sortu zen euskara batua?
- Zuek zer erabiltzen duzue erabilera esparru hauetan (osatu taula):

Erabilera esparru hauetan, euskaraz egiten duzunean, zer da erabiltzen duzuna? (markatu X batez zure egoerara gehien hurbiltzen den laukia)					
	(Ia) Beti batua	Gehienbat batua	Berdintsu	Gehienbat euskalkia	(Ia) Beti euskalkia
Gurasoekin edo aitona-amonekin					
Neba-arrebekin					
Lagunekin ahoz					
Lagunekin <i>whatsappez</i> edo sare sozialetan					
Eskolan ahoz irakasleekin					
Eskolako lanetan idatziz					

Irakurtzeko					
Besterik...					

## 10. JARDUERA: ATZERA BEGIRAKOA

### TXULETARIOA

Jaso hemen sekuentzian ikasitakoa.

<b>Soziolinguistika- edukiak</b>	Hizkuntza baten eta dialekto baten arteko aldea.	
	Euskara eta bere euskalkiak. Zenbat eta zeintzuk dira?	
	Euskalkien gaur egungo egoera.	
	Euskara batua eta euskalkiak.	
	Norberak zer dakien eta zer darabilen.	
	Etorkinek euskararekiko duten jarrera.	
<b>Talde-lana</b>	Talde bakoitzaren egitekoa eta jarrera.	
	Landutako teknika kooperatiboak.	
	Teknikekin ikasitakoa eta lortutakoa.	
<b>Komunikazioa</b>	Ahozko azalpenak eta iritziak emateko baliabideak.	
	Txango baten antolaketa.	
	Txangoaren prestaketan ikasitakoa.	

### 13. JARDUERA: LANEN EBALUAZIOA

#### EBALUAZIOA

Sekuentziaren abiapuntuan egiten zenekien horretatik hona... zenbat aurreratu duzu honakoetan?

		OHARRAK	Gutxi	Nahikoa	Askotxo
<b>Soziolinguistika-edukiak</b>	Hizkuntza baten eta dialekto baten arteko aldea.				
	Euskara eta bere euskalkiak. Zenbat eta zeintzuk dira?				
	Euskalkien gaur egungo egoera.				
	Euskara batua eta euskalkiak.				
	Norberak zer dakien eta zer darabilen.				
	Etorkinek euskararekiko duten jarrera.				
<b>Talde-lana</b>	Talde bakoitzaren egitekoa eta jarrera.				
	Landutako teknika kooperatiboak.				
	Teknikekin ikasitakoa eta lortutakoa.				
<b>Komunikazioa</b>	Ahozko azalpenak eta iritziak emateko baliabideak.				
	Txango baten antolaketa.				
	Txangoaren prestaketan ikasitakoa.				



## ERANSKINA 2

### Batua eta euskalkiak

<b>ARLOA:</b>
Euskara
<b>GAIA:</b>
Euskara batua eta euskalkiak: funtzioak eta elkarren arteko bateragarritasuna
<b>MAILA:</b>
DBH 1-2-3-4
<b>SAIO KOPURUA:</b>
8 saio

<b>AZKEN XEDEA:</b>
<p>Batetik, hizkuntzak, dialektoak, euskara batua eta euskalkiak, zer diren ezagutzea eta bereiztea. Euskara batua noiz eta zertarako sortu zen eta batuaren eta euskalkien arteko funtzio banaketa zein den azaltzea. Eta bestetik, ikasleena ez den euskalki bat hitz egiten den herri baterako txangoa prestatzea.</p>
<b>LANDUKO DIREN OINARRIZKO KONPETENTZIAK</b>
<p><b>KONPETENTZIA OROKORRAK:</b></p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Ikasten ikasteko konpetentzia: Pentsatzen eta ikasten jakitea.</li><li>2. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, eta teknologia digital eta mediatikoa erabiltzeko konpetentzia: Komunikatzen jakitea.</li><li>3. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia: Elkarrekin bizitzen jakitea</li><li>4. Norberaren autonomiarako konpetentzia: Izaten jakitea.</li><li>5. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia. Ekimenez jokatzeko jakitea.</li></ol> <p><b>ZEHAR KONPETENTZIAK:</b></p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia: Hizkuntzak eta Literatura.</li><li>2. Teknologiarako konpetentzia: Teknologia.</li><li>3. Arterako konpetentzia: Plastika eta ikus entzunezko adierazpena.</li><li>4. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia: Gizarte zientziak.</li></ol>
<b>HELBURU DIDAKTIKOAK:</b>
1., 3., 4., 5., 6. eta 8. helburuak

## **JARDUEREN SEKUENTZIA:**

### **EGOERA KOMUNIKATIBOAREN AURKEZPENA**

1. JARDUERA: AURKEZPENA

### **TESTUINGURATZEA**

2. JARDUERA: ZER DIRA HIZKUNTZAK ETA ZER DIALEKTOAK?

3. JARDUERA: OINARRIA FINKATUZ

### **GARAPEN FASEA**

4. JARDUERA: EUSKALKIEN MAPA OSATZEN

5. JARDUERA: GOGORA DITZAGUN GURE TXANGORIK GUSTUKOENAK!

6. JARDUERA: EUSKALKIEN EGOERA GAUR EGUN

### **GAUZATZE FASEA**

7. JARDUERA: TXANGO BAT EGITEKO PROPOSAMENAK  
BAINA, ZER DEMONTRE DA EUSKARA BATUA? ETA GUK, ZER  
DARABILGU?

9. JARDUERA: EZTABAIDA DEZAGUN

10. JARDUERA: ATZERA BEGIRAKOA

11. JARDUERA: TXANGORAKO HAUTAGAITZAK AURKEZTU ETA  
BOZKATU

### **XEDEA GAUZATZEA**

12. JARDUERA: TXANGOEA EGIN ETA WEBGUNEAN KRONIKA OSATU

### **EBALUAZIOA**

13. JARDUERA: LANEN EBALUAZIOA.

## **EGOERA KOMUNIKATIBOAREN AURKEZPENA**

**1. JARDUERA: AURKEZPENA**

Sekuentzia honetan batua eta euskalkiak izango ditugu aztergai.

Hasteko, hizkuntzen eta dialektoen arteko aldea zein den ikusiko dugu.

Ondoren, Euskal Herrira hurbilduko gara eta euskara batuaren eta euskalkien berri izango dugu. Zertarako sortu zen euskara batua? Gaur egun, zeintzuk dira euskalkien funtzioak? Galdera horiek erantzuten ere ahaleginduko gara.

Sekuentziaren helburua, txango bat prestatzea izango da, gurea ez den euskalki bat hitz egiten den leku batera, bisita egitarauarekin batera.



Sekuentzia honi hasiera emateko, Australiari buruzko bideo bat ikusiko dugu

Bideoa ikusi ondoren galdera hau planteatuko dugu talde handian:

- Zuek ezagutzen al duzue dialektorik?
- Bisita gidarik ezagutzen al duzue? Erabili al duzue inoiz?

## **TESTUINGURATZEA**

### **2. JARDUERA: ZER DIRA HIZKUNTZAK ETA ZER DIALEKTOAK?**

Askotan ez da erraza jakiten hizkera mota bat hizkuntza ote den ala dialektoa. Euskal Herritik gertu valentzieraren adibidea dugu: hizkuntzalari guztientzat katalanaren dialektoa den arren, badira aparteko hizkuntza dela defendatzen dutenak. Eta gertuko beste kasu bat aipatzearren: galegoa zer da, hizkuntza ala portugezaren dialektoa?

Gaira hurbiltzeko, Okzitaniatik Euskal Herrira etorritako Lionel Joly soziolinguistak emandako argibideen bideoa ikusi.



Lionelek azaldu digu zer den hizkuntza bat eta zer den dialektoa, baina berak adierazi duen bezala, bien arteko mugak ez dira horren garbiak.

Hori dela eta, ikasleek “Arkatzak erdira” egitura erabiliz honako galdera hauei erantzun beharko dituzte, hizkuntzak eta dialektoak zerk bereizten dituen argitzeko.

- Zeintzuk hitz egiten dira eremu geografiko zabalagoetan, hizkuntzak ala dialektoak?
- Zer ulertzen da hobeto, beste hizkuntza bat ala beste dialekto bat?
- Zein lotuko zenuke botere politikoarekin?
- Zein da batzuk eta besteak bereizteko aldagairik garrantzitsuena?
- Hizkuntzen eta dialektoen arteko bereizketa, garbia da ala lausoa da?

Ikasleek "arkatzak erdira" esango dute. Orduan, taldeko ikasle guztiek arkatzak mahai gainean jarriko dituzte. Momento horretan hitz egiteko aukera egongo da, baina ez, ordea, idazteko.

Taldekideetako batek galdera ozen irakurriko du eta galderari erantzuteko iritzia ematen lehena izango da. Ondoren, taldeko kide guztiei beren iritzia galdetuko die;

ordena zehatza jarraituko du (erloju-orratzen noranzkoa, adibidez) eta kide guztiek informazioa eta iritzia ematen dutela bermatuko du.

Adierazitako iritzi guztiak oinarri hartuta, eztabaidatu egingo dute eta guztien artean erabakiko dute zein den erantzun egokia. Une horretan ezingo da hitz egin, idatzi bakarrik.

Ikasleren batek ariketa egitean zalantzarik balu, "arkatzak erdira" eskatuko du berriro, galderak egin ahal izateko. Orduan, taldekide guztiek utzi egingo diote idazteari.

Prozedura errepikatu egingo da galdera bakoitzarekin. Ikasle bakoitza galdera edo ariketa batez arduratuko da.

Bakoitzak bere erantzunak idatzi eta gero, talde txikitan eztabaidatuko dituzte, talde bakoitzaren iritzia (edo iritzi nagusia) garbi izan arte.

### **3. JARDUERA: OINARRIA FINKATUZ**

Talde bakoitzeko idazkariak bere taldean bildutako informazioaren berri emango du, eta talde guztietan bildutako informazioa bateratu egingo da. Horretarako, erabili lan koadernoko ahozko aurkezpenak emateko gida.

Ondoren, Lionel Jolyren bideoaren bigarren zatia ikusi eta ondorioak aterako ditugu. Horretarako, lan-koadernoko taula erabili.

### **4. JARDUERA: EUSKALKIEN MAPA OSATZEN**

Zein neurritan ezagutzen ditugu euskalkiak? Ba al dakigu zenbat diren eta non hitz egiten diren?

Galdera horiei erantzuten hasi aurretik, Kike Amonarrizek Ordiziako kaleetan aurkitu zituen herritarrei proposatu zien jokoaren bideoa ikusiko dugu. Ea ikasleek ere asmatzen dituzten erantzunak!

Bideoa ikusi ondoren, talde handian galdera hauen inguruko erantzunak jaso daitezke:

- Zenbat euskalki ezagutzen dituzu? Non hitz egiten dira?
- Zure herrian zein euskalki hitz egiten da?
- Eta zure familian? Eta zure etxean?

Ondoren, ikasleei Euskal Herriko mapa zuria emango zaie eta bertan euskalkiak kokatu beharko dituzte talde txikitan. 1-2-4 egitura erabiliz gauzatu lezakete jarduera.

Oinarri-taldearen barruan, ikasle bakoitzak ezagutzen dituen euskalkiak mapan kokatuko ditu («Banaka»). Gero, binaka jarriko dira. Elkarrekin partekatuko dituzte



bakoitzaren iritziak eta erantzunak adostu ondoren 2. mapa osatuko dute («Binaka»). Azkenik, talde osoak, taldeko bi «bikoteek» emandako erantzunak aipatu ondoren, mapa behin betiko osatuko du («Launaka»).

Azkenik, talde handian konparatu egingo dituzte mapak eta ondorioak atera.

## **5. JARDUERA: GOGORA DITZAGUN GURE TXANGORIK GUSTUKOENAK!**

Ikasleek Euskal Herrian ezagutzen dituzten leku desberdinak zerrendatu beharko dituzte eta bertan hitz egiten den euskalkia identifikatzen saiatu.

Aurreko urtetan egindako eskolako txangoak gogora ditzakete, edo norberak gurasoekin edo lagunekin egindakoak aipatu.

Azkenik, talde handian komentatuko dituzte ezagutzen dituzten lekuen izenak, non dauden eta hauetan hitz egiten diren euskalkiak. Gogoratu beraien txango proposamenerako aproposak izan daitezkeela leku hauek.

*Orri birakariaren* egitura erabiliz gauzatuko da jarduera.

Taldekideetako bat hasiko da zerrenda osatzen. Ezagutzen dituen lekuak zerrendatuko ditu eta hauetan hitz egiten den euskalkia adierazi. Ondoren, erlojuaren orratzen norabidean hurrengo taldekideak jarraituko du, honela, taldekide guztiek erantzun arte. Azkenik, taldeko bozeramaileak aipatuko ditu talde handian beraien ekarpenak.



## GARAPEN FASEA

### 6. JARDUERA: EUSKALKIEN EGOERA GAUR EGUN

Euskalkien banaketari buruzko lehen mapa Louis-Lucien Bonaparte printzeak egin zuen 1863. urtean. Luis-Lucien Napoleon Bonaparteren iloba zen eta bizitza guztia eman zuen euskara eta euskalkiak ikertzen. Azken hamarkada hauetan, aldiz, Koldo Zuazo hizkuntzalaria izan da Bonaparteren sailkapena gaurkotzeko lana hartu duena.

Ikusi mapa hauei buruzko bideoa.



Bideoa ikusi ondoren bi mapak konparatu beharko dituzte eta "Arkatzak erdira" egitura erabiliz ondorengo galderak erantzun lan koadernoan. Wikipediako euskalkien sarrera kontsultatu dezakete irudiak hobe ikusteko eta informazioa jasotzeko (<https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskalki>).


- Zenbat euskalki daude?
- Nola banatzen dira lurralde desberdinetan? Euskalkiak eta lurraldeak bat al datoz?
- Hitz egiten diren eremu geografikoen tamaina berdina al da?
- Non galdu dira euskalkiak? Zein euskalki?
- Non zabaldu dira euskalki batzuk?
- Non aldatu dute euskalkiz?
- Euskalkiak izendatzeko modu bera al darabilte bi mapek?
- Zer hitz egiten da euskalkien kolorerik ez duten eremuetan?

Ikasleek "arkatzak erdira" esango dute. Orduan, taldeko ikasle guztiek arkatzak mahai gainean jarriko dituzte. Momento horretan hitz egiteko aukera egongo da, baina ez, ordea, idazteko.

Taldekideetako batek galdera ozen irakurriko du eta galderari erantzuteko iritzia ematen lehena izango da. Ondoren, taldeko kide guztiei beren iritzia galdetuko die; ordena zehatza jarraituko du (erloju-orratzen noranzkoa, adibidez) eta kide guztiek informazioa eta iritzia ematen dutela bermatuko du.

Adierazitako iritzi guztiak oinarri hartuta, eztabaidatu egingo dute eta guztien artean erabakiko dute zein den erantzun egokia. Une horretan ezingo da hitz egin, idatzi bakarrik.

Ikasleren batek ariketa egitean zalantzarik balu, "arkatzak erdira" eskatuko du berriro, galderak egin ahal izateko. Orduan, taldekide guztiek utzi egingo diote idazteari. Prozedura errepikatu egingo da galdera bakoitzarekin. Ikasle bakoitza galdera edo ariketa batez arduratuko da.







Azkenik, Koldo Zuazoren elkarrizketaren azken galderak ikusiko ditugu eta erantzunak zuzenduko ditugu talde handian.



## 7. JARDUERA: TXANGO BAT EGITEKO PROPOSAMENAK

Hasteko, ikasleek, talde txikitik banatuta, beraien ez den euskalki bat hitz egiten den leku bat aukeratu beharko dute txangoa egiteko eta bisita-eguna antolatu.

Irakasleak, Koldo Zuazoren mapan oinarrituta, talde bakoitzari euskalki bat emango dio zuzenean edo zozketa bidez. Ikasleek, mapan non hitz egiten den markatu eta herri bat (edo zona bat) aukeratu beharko dute txangoa egiteko.

Ondoren, ikasle talde bakoitzak, aukeratu duen herriak edo zonak egun-pasa egiteko eskaintzen dituen interesguneei buruzko informazioa bilduko du eta ondoren, talde

handian aurkeztu. Beren hautagaitza aukeratua izan dadin ahalik eta eskaintzarik erakargarriena landu beharko dute:

- Zer dago bertan ikusteko?
- Zein da bertako aisialdi-eskaintza? Zer egin daiteke bertan?
- Non bazkaldu genezake?
- Nora joan gaitezke bertako euskalkia entzutera?
- Ba al da harremanetan jartzeko moduko talde edo ikastetxerik?
- Zein toki edo monumentu interesgarri ikus daitezke?

Horretarako, hainbat bide erabil ditzakete:

- Ohiko bideak erabili: Wikipedia, herri horietako webguneak, liburuak...
- Edo/eta bertoko udalarekin edo turismo-bulegoarekin harremanetan jarritz.
- Edo/eta bertoko ikastetxe batekin eta hango ikasleekin harremanetan jarritz.

Komenigarria litzateke ere, euskalkien berri ematen duten webgune hauek kontsultatzea informazioa biltzeko:

<http://nieuskalduna.metroo.es/>

<http://www.ahotsak.eus/>

<http://ikasgelan.ahotsak.eus/>

<http://euskalkiak.eu/>

Talde bakoitzak, txangoaren egun osoko egitaraua osatuko du:

- Noiz eta nondik atera eta noiz itzuli.
- Bisitatu beharreko tokiak: aisialdi-eskaintzak, monumentuak eta leku interesgarriak.
- Euskalkiaren berri emango diguten bisitak: pertsonak, elkarteak edo ikastetxea...
- Bazkaltzeko eta atsedenaldirako lekua.



## **8. JARDUERA: BAINA, ZER DEMONTRE DA EUSKARA BATUA? ETA GUK, ZER DARABILGU?**

Euskalkiei buruzko informazioa bildu dugu, baina garbi al dugu zer den euskara batua? Edo batuaren ikuspegi desitxuratua daukagu? Hori argitzen hasteko, Kike Amonarrizek Euskaltzainburu den Andres Urrutiari egindako elkarrizketaren zati bat ikusiko dugu.



Elkarrizketa entzun ondoren, talde txikitan honako galdera hauen inguruko eztabaida planteatuko da:

- Zer da euskara batua? Zer da hizkuntza estandarra?
- Noiz eta zertarako sortu zen euskara batua?
- Zuek zer erabiltzen duzue erabilera-esparru hauetan? (Osatu lan-koadernoko taula).

Bestalde, jarduera honetan entzundakoak eta ikasitakoak, beraien euskara batuarekiko ikuspegia aldatu ote duen ere eztabaida liteke.

”Arkatzak erdira” egitura erabil dezakete galderei erantzuteko eta, taula bete ondoren, ondorio orokorrak aterako dituzte talde txikian.

## GAUZATZE FASEA

### 9. JARDUERA: EZTABAIDA DEZAGUN

Aurreko jardueran talde txikitan ateratako ondorioak partekatzeko ordua da. Bozeramaileek, beren taldeetako emaitzak aurkeztuko dituzte eta, ondoren, talde handian ondorio orokorrak aterako ditugu, gelan dauden joerak identifikatuz eta multzokatuz: batuaz bakarrik egiten dutenak, nagusiki euskalkia darabiltenak eta biak erabiltzen dituztenak.

Ondoren, Euskal Herriko 3 eremu desberdinetako gazte batzuek euskara batuaren eta euskalkien inguruan zer pentsatzen duten ikusiko dugu bidean.





Bideoa ikusi eta gero, bi gai nagusi hauei buruzko eztabaida burutuko da talde handian, ahozko komunikazioa landuz eta elkarrizketa zuzentzen duten arau sozio-komunikatiboak aplikatuz. Horretarako, aintzat hartu iritziak emateko gida.

- Zuen ustez, zuek hitz egiten duzuen zer da, euskara batua ala euskalkia?
- Non eta nola erabili beharko litzateke euskara batua eta noiz euskalkiak?

Ondoren, berriemaile helduen bideoa ikusiko dugu, Koldo Zuazoren azken interbentzioarekin batera.



## 10. JARDUERA: ATZERA BEGIRAKOA

Sekuentzian zehar landutakoa aintzat hartuz lan-koadernoko Txuletarioa bete beharko dute ikasleek. Taula honetan bilduko da sekuentzian ikasitakoa eta bertan jarritako irizpide eta edukiak izango dira ebaluatuko ditugunak.

## 11. JARDUERA: TXANGORAKO HAUTAGAITZAK AURKEZTU ETA BOZKATU

Sekuentzia amaitzeko, talde txikietan prestatutako hautagaitzak eta egitarauak talde handian aurkeztuko dira.

Talde txiki bakoitzeko bozeramaileak bere hautagaitza aurkeztuko du talde handiaren aurrean ahoz. Horretarako, baliatu ahozko azalpenak emateko gidaz.

Hautagaitza guztiak aurkeztu eta gero, bozketa sekretua burutuko da. Ikasle bakoitzak paper batean idatziko du txangoa nora egin nahi duen. Lehen itzulian hautagaitzaren batek botoen gehiengoa lortuz gero, txangoa bertara izango da. Hala ez bada, boto gehien lortu dituzten bi hautagaitzen artean aukeratu da bigarren itzulian eta boto gehien biltzen duen lekua izango da txangoaren helmuga.



## **XEDEA GAUZATZEA**

### **12. JARDUERA: TXANGOA EGIN ETA WEBGUNEAN KRONIKA OSATU**

Txangoa egin aukeratu den lekura, eta, hurrengo egunetan, eskolako webean kronika osatu: argazkiak, bideoak eta egunaren inguruko erreportajea, izandako harremanen eta bertako euskalkiaren inguruko berri eman ez.

Ikasle bakoitzari atentzioa zerk eman dion nabarmentzea ere ondo legoke.



## **EBALUAZIOA**

### **13. JARDUERA: LANEN EBALUAZIOA**

Egindako txangoaren egokitasuna aztertuko da talde handian.

Ondoren, Txuletarioan jarritakoa kontuan hartuz, sekuentzian ikasitakoa ebaluatuko da.

#### **ERANSKINA 3**

0.fasean, sekuentzian zer egingo den aurkezten zaie ikasleei eta baita azken helburua zein izango den ere. Honekin batera, egingo diren jarduera eta dinamiken berri ere jasotzen dute.

Lehenengoa, berriz, ikasleen aurrezagutzak aktibatzeko unea da. Duten informazioa ikaskideekin elkarbanatzen dute egitura kooperatiboan bidez eta dakiten hori gelakide guztiekin erkatu ondoren plataformara igotzen dute. Irakasleak oinarrizko azalpen batzuk ematen ditu landu nahi den gaiaren inguruan eta hainbat galderen bidez ikasleak gaiari buruz zein ekoitzi nahi den bukaerako proiektuari buruz daukaten ezagutza baloratzen da. Horrela hutsune eta gabeziak identifikatu eta irakas objektua definituko da.

Bigarren fasean, informazioa biltzeari ekingo diote ikasleek. Horretarako, "Tribuaren Berbak" saioko bideo zatiak ikusiko dituzte baina internet, galdeketak... ere baliatu ahal izango dituzte. Behin informazioa bilduta, partekatu eta konparatu egingo

dute besteekin eztabaida eta iritziak ere jorratuko dira atal honetan eta horrez gain, azken xede komunikatiboari erantzuteko behar dituzten trebeztan sakonduko dute ikasleek. Irakaslea laguntzailea eta aholkularia izango da fase honetan.

Hirugarren fasea ekintza fasea da. Azken proiektua gauzatzeko beharrezko ekintzak egingo dira aurrez bildu den informazio guztiarekin. Denbora honetan, autozuzenketa eta taldekakoa ere landuko dute.

4.fasean amaierako helburua ekoitziko dute eta plataformara igoko dute. Honekin batera, hausnarketa prozesua ere izango da, euskararen eta eleaniztasunaren inguruan pentsatzen ariko baitira ikasleak. Glosategiaren bitartez hainbat kontzepturen esanahia barneratuko dute eta sekuentzian harritu dituen edo deskubritu dutena azpimarratu beharko dute.

Azken fasean, ebaluazio-irizpideetan oinarritutako ebaluaketa formatiboa egingo da. Prozesua ebaluatuko da eta hasieran zituzten aurrezagutzetatik abiatuta bukaerako jakintza behatuko da eta aurrerapena da baloratuko dena, ez azken emaitza bere horretan.

Sekuentziaren amaieran edo fase bakoitzaren amaieran ikasle bakoitzak gaiari buruz, komunikazio gaitasunei buruz... zer ikasi duen zehaztu beharko du.

#### ERANSKINA 4

Honakoak izango lirateke landuko diren konpetentziak:

- Ikasten ikasteko konpetentzia: pentsatzen eta ikasten jakitea.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia: elkarrekin bizitzen jakitea
- Norberaren autonomiarako konpetentzia: izaten jakitea.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia. Ekimenez jokatzeko jakitea.

Eta honako hauek, aldiz, zehar konpetentziak:

- Teknologiarako konpetentzia: teknologia.
- Arterako konpetentzia: plastika eta ikus entzunezko adierazpena.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia: gizarte zientziak.

#### ERANSKINA 5

1. helburua: euskarari eta Euskal Herriko eleaniztasunari buruzko oinarritzko ezagutza soziolinguistikoa ematea. Helburu honi garrantzi berezia ematen diogu, curriculumean



hala agertzen bada ere, orokorrean, soziolinguistikari buruzko gaiak ez direlako ia ukitzen testu liburuetan. Material honen helbururik behinetako bat beraz, hutsune hori betetzea da.

4. helburua: euskararen bilakaera historikoa ezagutaraztea, gaur egungo egoera soziolinguistikoa eta norberaren eta inguruko errealitate soziolinguistikoa interpretatzeko bideak eskaintzea.

5. helburua: euskararen aldaerak, euskalkiak, ondare linguistikoa, eta hizkuntzaren bilakaera ezagutzea eta prestigiatzea, ikasleen autoestima linguistikoa eta hobekuntzarako jarrera sustatzea.

6. helburua: hizkuntzaren bilakaeran eta egoeran eragiten duten faktore garrantzitsuenak ezagutzea eta hizkuntzaren normalizazioaren aldeko erakunde eta ekimen nagusiak ezagutaraztea.

8. helburua: edukien ebaluaziorako irizpideak zehaztea.